

Kultura

Amatzako trikitixa jaialdiaren hirugarren edizioa egingo dute, bihar; eta Elorrioko trikitilari gazteen txapelketa, domekan. > 11



JAIK!

ZALDIBAR



*“Eskozian
ezjakintasuna
antzematen da”*

Sarai Macarro

Urte bi daramatza Edinburgon

Joseba Attard

Elorriarra, baina Ingalaterran jaioa

*“Jarrera
arrazista zabaldu
da kanpainan”*



Sorterritik aspaldi joan ziren arren, Erresuma Batuko erreferenduma gertutik jarraitu dute Durangaldean bizi diren Joseba Attardek eta Kate Greenek. Edinburgon eta Londresen bizi diren Sarai Macarro berriztarrak eta Ane Barrainkua elorriarrak, berriz, bertatik bertara jarraitu dute prozesua. > 2-3



*“Jendea triste
dago; ez dakigu
zer gertatuko den”*

Ane Barrainkua

Ingeniari kimikoa da Londresen

Kate Green

Orain 12 urte irten zen Ingalaterratik

*“Harridura eta
dezepzio handia
sentitu ditut”*



Hemen da BeMa!

Martin Berasategiren eskutik, Gran
Hotel Durangoko jatetxe berria.

www.restaurantebema.com

BeMa

DURANGO
by Martin Berasategi

Durango > 4

Kobanegaz senidetuko dira
Durango, Elorrio eta Otxandio

Abadiño > 7

Isuri kutsagarria garbitzen
dihardute Atxarten

Iurreta > 5

Urrian hasi gura dute eraikitzen
Askondoko estalpea

Zaldibar > 5

Futbol zelaiaren eraikitzaileek
kalte-ordaina eman diote udalari

Herririk herri

Erresuma Batua: lurrikararen osteko iritzi eta sentimenduak

Durangaldean bizi diren britainiarrek euren usteak elkarbanatu dituzte

ERREPORTAJEA J.Derteano
Erresuma Batua Europar Batasunetik irtengo da. Herritarren gehiengoak horrela erabaki du. Erresuma Batua bera kolokan jartzen al du hautu horrek? Eta Europar Batasunaren proiektua domino efektuaren atarian ote dago? Erabaki historiko batek uzten dituen galdera konplikatuak dira.

“Oro har, Erresuma Batuan barne, ez dut uste komunitate historikoaren kontzeptua zalanztan jartzen denik”, dio analisi politikorako EKAI Center Fundazioko presidentea den Adrian Zelaia: “Zalantza jartzen dena aurrera eraman diren politikak

eta hartzen diren erabakiak dira”. Brexit-ak eragin duen zurrunbiloa Europako proiektua berregituratzeko baliatu daitekeela uste du: “Arriskua aukera estrategikoa bihurtu daiteke. Izan ere, Erresuma Batua Europar Batasunean izan duen jarraera oztopo strategiko bat izan da hainbat urtetan”. Hori bai, mehatxu ekonomiko eta instituzionalari aurre egiteko “erabaki bizkorak” hartu behar direla uste du: “Portugal, Italian, Grezian, Frantzian eta Alemanian, esaterako, badaude Europako Batasuna ezbaian jartzen duten eskuma edo ezkerreko mugimendu indartsuak”.

Eta Brexit-ak zein egoeratan uzten du Erresuma Batua? Askok eskatzen duten lez erreferenduma errepikatzea zaila da Zelaia ustez: “Teorian posible da, baina hori gauzatzea gogorra litzateke, auskalo zer mailatako barne zatiketa gaindiezina eragingo lukeen”.

Horiek aditu baten iritziak dira, baina britainiarren sentimenak ere jaso gura izan ditugu. Batetik, Durangaldean bizi diren ingeles bik euren sorterrian gertatu denari buruzko iritzia elkarbanatu dute; Erresuma Batuan bizi diren Durangaldeko lagun bik, berriz, han ikusi eta bizitakoa kontatu digute.



“Ingelesek hartutako erabakiagaz eskoziarrek kaltetuta ikusten dute beraien burua”

2014ko urrian Sarai Macarro (Berriz, 1991) Eskoziara joan zen bizitzera. Gehien motibatzen zuen arrazoia ingelesez ikastea izan zen. Lagun batek Edinburgo hiria gomendatu zion, eta, maleta eskuan hartuta, bertara joan zen lan bila. Egoitza batean bizi diren eta aniztasun funtzionala duten pertsonen egunerokotasunean laguntza eskaintzen dihardu lanean.

Brexit-a dela eta, zein sentsazio nabaritu duzu Eskozian zure inguruan bizi diren pertsonen artean?

Ezjakintasuna antzematen da, beldurra. Ingelesek hartutako erabakiagaz berriz ere kaltetuta ikusten dute beraien burua. Ez dakit zein puntutaraino diren egoerarekiko kontziente eskoziarrak, baina badirudi ez

daudela egoeragaz ados. Iruditzen zait herrialdeak ez zekiela erreferenduma atzerriarren aurka edo Erresuma Batua Europatik kanpo ikusteko erabaki bat zen. Kanpaina osoa, gehienak bezala, beldurgarria izan da. Ingalaterran eta Galesen kasuan, esango nuke txantxa urrunegi joan dela orain. Ipar Irlandaren kasua, aldiz, guztiz desberdina da, eta egoera zailagoa da Irlanda batu bat sortzeko bidean.

Brexit-aren eraginez Eskozian independentismoa indartu egin dela esango zenuke?

Bai, eta badirudi beste erreferendum bat egingo dela. Hala ere, ez dakit momentuko egoeraren berotasunak eta beldurrak eragindakoa edo independentzia beraren nahia den. Eskoziarentzat Europatik

banatze honek bere ondorioak izango ditu, eta, batek daki, agian ohitu eta eroso sentituko dira hilabete batzuk barru.

Etorkin moduan, zure egoerari zelan eragin diezaioke?

Aspalditik hasi ziren atzerriarren kontrako neurriak hartzen Erresuma Batuan. Orain ez dakit zer datorren. Ez dakit honi erantzun diezaiokkeen politikaririk egongo den. Goiz da egia berriak sortzeko. Egoera lasaitu arte ez dut uste neurririk hartuko dutenik etorkinentzat. Hala ere, argi daukat herrialde honek etorkinak behar dituela, eta ahaztu badute ere, atzerriarrok ere egunero egiten dugu lan herrialde honen alde, eskoziar eta ingelesekin batera. Ez dut indar horietako bat gabe Erresuma Batua irudikatzen.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko uztailaren 1a
14. urtea - 639. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



“Zientzian dihardutenek badakite Brexitak ikerketen finantziazioan eragina izango duela”

Ane Barrainkua (Elorrio, 1986) orain hiru urte Erresuma Batua joan zen, Londresera, hain zuzen. Ingeniari kimiko moduan dabil. Bere inguruko lankideek ez dutela Brexita ulertzen azaldu du. Ikerketan diharduten zientzialariei eta enpresei eragingo diela dio.

Brexita dela eta, zein sentsazio nabaritu duzu zure inguruan?

Jenderik gehiena triste dago, ez dakigu orain zer gertatuko den. Gehienbat, Brexitaren alde bozkatu duten gutxiak arrazismoaren inguruan egin baitute, eta hori kalean eta aldizkarietan ikusten hasi gara.

Zure inguruan jendeak zer dio?
Lagun eta lankiderik gehienek ez dute ondo hartu. Ulertzen dute zelan batez ere Londresen, Europaren barruan jarraitzeak ekartzen dituen abantailak. Adibide gisa, nire lagun pare batek zientzia arloan lan egiten dute. Badakite Brexitak ikerketaren finantziazioan izango duela eragina, eta zientzialarien mugimenduan European ere bai.

Etorkin moduan, zure egoerari zelan eragin diezaioke Brexitak?

Brexitaren ondorioa ekonomikoa eta politikoa izango da,

honek enpresa askotan izango du eragina. Ondorioz, enpresen estrategiak aldatu egingo dira, bai Londresen eta baita Erresuma Batuan ere. Baina, oraindik oso goiz da Brexitaren ondorioaren egoera jakiteko. Europarekiko negoziazioak aurrera doazen heinean, ideia gehiago edukiko dugu.

Etorkinekiko zein jarrera nabaritu duzu?

Espero dut orain nabaritzen den banaketa amaitzea.

Zein sektoretan diharduzu lanean?

Ingeniari kimiko gisa nago Zertifikazio enpresa batean.



Bertan gelditzeko asmoa duzu?

Oraingo baietz esango nuke, Londresen bizitzeak abaintaila asko ditu, hirian gauza mor-

doa daude egiteko. Era berean, hainbeste arraza eta kultura desberdinekin bizitzea asko gustatzen zaidala aitortu behar dut.



Joseba Attard elorriarra Cheltnamen (Ingalaterra) jaio zen, 1979an. Diseinuan egin izan du lan, eta gaur egun ardiak mozten ditu.

Erreferendumean parte hartzeko aukerarik eduki duzu?

Batez ere euskalduna sentitzen naizen arren, ni han jaio nintzen, eta pasaporte britainiarra daukat. Bikotekideak eta biok erreferendumean parte hartzeko eskaera egin genuen, baina berari bakarrik heldu zitzaizkion paperak, niri ez. Jende

“Erreferendumean parte hartzeko eskaera egin nuen, baina ez zitzaidan paperik heldu”

gehiagori ere berdina gertatu zaiola entzun dut.

Zer iruditu zaizu emaitza?

Ulertzen dut zergatik egin duten Brexitaren alde, baina ez nago ados. Jende nagusiak bozkatu du Brexitaren alde. Eurek Europar Batasunean sartu aurreko Britainia Handia ezagutu zuten, eta, horregatik, nortasun kontu bat da. Nortasuna berreskuratu gura dute: Erregina, inperioa, Europako lider-tza... Jarrera arrazista zabaldu da kanpainan. Baina, azken 40 urteetan asko aldatu da egoera nortasun ikuspegitik. Gizartea oso multikulturala da, eta gaur egungo Estatua denok eraiki

dugu. Adibide lez, janari tipikoetako bat pasta da, bolognar erara. Bestalde, emaitzarena aipagarria da. %52 agertu dira alde, eta %48 aurka. Oso parekoa izan da; biztanleen erdiek ez dute Brexitaren alde bozkatu. Irlanda asko maitatzen dudan herrialdea da; lan handia egin dute mugak kentzeko, eta berriro ezarri gura dituzte.

Europar Batasunetik irteteak zure egoera pertsonalean eragingo duela uste duzu?

Naziotasun britainiarra daukat bakarrik. Ezin dut hemengo eduki, Britainia Handiak eta Espainiak ez daukatelako hitzarmenik. Independentzia

aldarrikatuko balitz Euskal Herrian, naziotasuna eskatzeko lerroan lehena izango nintzateke. Baliteke oztopo gehiago sortzea: gidatzeko baimena berriro atera beharra, Osakidetza zerbitzua ordaintzea... Gure kasuan autonomoak gara biok, eta bisa lortzea zailagoa izan ahal da.

Europarra sentitzen zara?

Euskal Herri independente bat gura dut, baina europarra sentitzen naiz, eta mundutarra ere bai. Ez dakit etorkizunean ingeles ikastea hain garrantzitsua izango den, agian alemana edo arabiera ikasi beharko dugu (barrez).

“Harridura eta dezepzio handia sentitu ditut; ez nuen uste irteteko aukerak irabaziko zuenik”

Kate Green (Brighton, 1991) orain 12 urte irten zen Ingalaterratik. Azkeneko zortzi urteetan Durangon bizi da. Erresuma Batua Europar Batasunaren barruan mantentzearen aldekoa da.

Zer sentitu zenuen erreferendumearen emaitza jakitean?

Harridura eta dezepzio handia sentitu nituen. Banekien emaitza estuak izango zirena, baina ez nuen inondik espero Europar Batasunetik irteteko aukerak irabaziko zuenik. Zorramena iruditzen zait.

Erresuma Batua errentzat zergatik da hain kaltegarria emaitza?

Pertsonalki, uste dut, batutako munduak hobeto funtzionatzen duela. Ingalaterra dagoeneko ez da uste duten garai bateko inperioa. Niretzat, gaur egun, irla bat da, eta ez da beste estatu batzuk baino inportanteagoa. Aurrera egitea kostatu egin ahal zaiela uste dut.

Zuretzat arlo pertsonalean zer ondorio izan dezakeen begiratu duzu?

Urte askoan Ingalaterratik kanpora bizi naiz. Nire etxea, Ingalaterra baino, gaur egun bizi naizen toki hau dela sentitzen dut. Baina britainiar nazionalitatea dut, eta ez diot horri uko egin gura. Baina Europar Bata-

sunaren barruan egon gura dut, eta, horretarako, herritartasuna aldatu behar badut eta Espainiakoa egin, egingo dut. Baina gura go nuke herritartasun bikoitza izan, nire erroak han daudelako eta familia ere han dudalako. Britainiar herritartasunagaz errazagoa da hara bisitan joatea.

Change.org-n sinadura bilketa hasi dute erreferenduma errepikatu dadin eskatzeko.

Nik sinatu dut dagoeneko. Berriro egitea ez dut txarto ikusten. Askok diote: hori da emaitza, onartu beharra dago, eta aurrera egin. Bai, horregaz ere ados nago, baina, beste alde batetik, erreferendumearen



aurreko kanpaina bidegabekia izan dela deritzot. Diotenez, benetako gauzez enteratzen ari dira orain, eta milioi bat lagun inguru damututa dago Brexitaren alde bozkatzeari; hau da, kanpainako argumentu asko ez ziren errealak. Europar

Batasunetik irteteko zazpi arrazoi batzen zituen artikulu bat irakurri dut oraintsu, eta, nire ustez, ez ziren arrazoi sendoak. Immigrazioaren aurrean segurtasuna zen argumentu bat; sentimenduetan eragitera jo dute euren helburuak lortzeko.



“Plazerra zabala eta sakona da, baina mugatuta bizi dugu”

‘Heteroaraua ez da gure bakea’ lemapean solasaldia burutu dute

DURANGO Markel Onaindia
Ekainaren 28aren bueltan, solasaldia burutu zuten astelehenean Plateruenean, Miren Amuriza gidari zela. Bilgune Feministako Mireia Delgadok eta ume transexualen elkarte-ko (Chrysallis) Bea Severrek berba egin zuten. 6 urteko seme transexuala du Severrek.

Solasaldia gidatzeko ardura eduki zenuen, Miren. Zelan? Egunero gabiltza gai honen bueltan, baina zortea da bueltan barik barruan dabilen jende bategaz landu ahal izatea. Aberasgarria izan zen. Horrelako lanak eskatzeak, gainera, zu ere ikastera behartzen zaitu.

Arau lez ulertzen denaren inguruan hausnartu zenuten. Heteroarauak egunerokotasunean zenbateraino eragiten duen azaldu, eta plazerraren irakurketa bat egin genuen, tresna moduan ulertuta. Zertarako? Desobeditzeko eta arrakalak zabaltzeko.

Mireia, Bilgune Feministatik gida bat zabaltzen zabiltzate, heteroaraua desobeditzeko. Gidaren helburu nagusia hain handia den munstroa arrakaltzeko estrategia zehatzak ematea da. Gainera, nik esan behar dut zer egin behar duzun heteroaraua apurtzeko? Norberaren iraultzak dira. Adibide txikiak datoz gidan: beste batek hanka artean duena kontuan hartu barik, ligatzeko gogoia edukiz gero berarengana hurreratzea, genitalak zentralitate moduan hartu beharrean gorputzeko

beste edozein ataletan zentratzea, normalean gustatzen ez zaidanean zerbait erakargarria topatzen saiatzea, hilekoa duzula sexua praktikatzeara...

Plazerra tresna lez proposatzen duzue ezarritako eredu- aurre egiteko, ezta? Plazerra esparru zabal eta sakona da, baina orokorrean mugatuta bizi dugu. Plazerra ematen diguna oso lotuta dago ongietekin eta gaizkiarekin. Beraz, plazerrari buelta emanez, heteroaraua bera iraultzen dugu. Isilpeko gerra sakona da heteroarauarena. Gauza bat da heterosexualitatea praktikatzeara, eta beste bat arau lez ulertzea. Gure desioak irudi batzuen arabera proiektatzen ditugu, eta hori ondo ikusten da, adibidez, perfumeeen iragarkiekin. Oso politikoa da, eta interes asko daude horren atzean.

Bea, seme transexualagaz izandako esperientzia kontatu zenuen. Alaba gurela uste genuen guk. Hitz egin aurretik jada seinale batzuk ematen hasi zen, eta beti beste joera bat ikusten genion, nahiz eta arrunta izan ahal den. Baina berba egiten hasi zenean, seinaleak ugaritu ziren. Egun batean, bost urterekin, oheratzean eztanda egin eta negar batean hasi zen. Esaten zidan ea ez ote nuen ikusten bera mutila zela. Umeentzat liberazioa da, baina guretzat oso gogorra. Ikastolakoei esan behar diezu gero, bizilagunari, dendariari... baina umeak zoriontsuak dira, eta merezi du. Nerabezaroa, baina,

ez da erraza izango. Bestalde, zure semea panpinekin jolastu arren ez du esan gura transexuala denik, eta elkartera etorri izan diren guraso batzuek hori uste dute. Garrantzitsuena, beti, umeari entzutea da.

Transexualitatea genitalen ebakuntzagaz lotu izan da. Ez du zertan horrela izan, ezta? Kasu gehienetan ez da ebakuntzarik egiten. Gizon transexualen kasuan, batez ere, gutxi- gutxi egiten dute ebakuntza, klitoriaren sentsibilitatea galtzen duzulako, funtzionala izango ez den zakil baten orde- Lehen bai; 18 urte izateaz gain, urte biko tratamendu psikiatrikoa eta ebakuntza eskatzen zuten nortasuna aldatzeko. Nire semeak 18 urte betetzen dituenean, bere erabakia izango da, eta bere ondoan egongo naiz. Baina uste eta espero dut ez duela ebakuntza egingo. Alderantziz balitz, ez nuke gura silikonazko titiak ipintzerik, adibidez. Gure umeen gorputzak ez dira okerrak, gure begirada da okerra. Badira bulba duten mutilak, eta zakila duten neskak ere bai. Nire semea, gaur egun, mutilen aldagelan egoten da arazorik barik.

Gurasoei borroka egitea eskatzen dizue... Ukatu izan zaien transexualen artean, ia %43ko suizidio saia- kera tasa egon da. Pentsatzen duzu zurea ezin dela egon tarte horretan. Oztupo burokrati- koak dituzte izen aldaketarako, agiri- etako sexu izendapena da- go... Azalpenak eman behar di- tuzu euren intimitatea urratuz.

Presoen sakabanaketaren aurka agertu da udala

Lupiañezen lagun bik auto istripua eduki zuten

DURANGO M.O.
Topaseko kartzelan (Salamanca, Espainia) dago Gorka Lupiañez preso durangarra, eta joan zen asteburuan bisitan joan zitzaizkion bi lagunek (la- gun bat eta adin txikiko bat) au- to istripua eduki zuten. Ez zuten zauri larriarik izan, eta bisitara heldu ahal izan ziren; hori bai, normalean 40 minutukoa den bisita 15ekoa egin ahal izan zu- ten soilik.

Etxeratek salatu du aurten dispertsioaren eraginez ger- tatutako seigarren ezbeharra dela Lupiañezen lagunena. Gertakariaren harira, mozioa aurkeztu du EH Bilduk, eta ho- rrela, sakabanaketa politika

amaitzea eskatu du Durangoko Udalak. EAJk eta Herriaren Eskubideak babestu zuten EH Bilduren mozioa.

PSE-EEk mozio alternatiboa aurkeztu zuen, kartzela politika berri baten aldekoa, baina ETA- ri desagertzeko eskatzen diona. PPK aurka egin zuen, presoen egoeraren ardura ETArena eta presoena euren dela esanez.

Horrez gainera, Elorrioko Udalak ere sakabanaketa amai- tzea eskatu du, EH Bildu eta Herriaren Eskubidea alderdiek onartuta. Lupiañezen eta Elo- rrioko presoen egoeraz infor- mazioa jasotzeko asmoz, udal batzorde bat sortzeko aukera aztertuko du udalak.

Kobane hiri kurduagaz senidetuko dira Elorrio, Durango eta Otxandio

Michel Allison kurduen ordezkariagaz batu dira



Allisonegaz batera, udal ordezkariak eta Kurdistanen egondako batzuk.

DURANGO M.O.
Michel Allison Kurdistango kongresuko emakumeen or- dezkarari harrera egin zioten atzo, eta Kobane hiri kurdua Durango, Elorrio, Otxandio eta Gernikagaz senidetzeko lehen pausoa izan zen. Duela pare bat hilabete, Durangaldeko zazpi lagun Kurdistanen egon ziren, eta hortik dator ekimena. Ema- kume kurduen borrokagaz lo- tuta, herri ahizpak izango dira, anaiak beharrean.

Estatutik bako herririk han- diena da Kurdistan, Turkia, Si- ria, Iran eta Iraken baita zatitu zutena. Azkenaldian, Estatu Is- lamikoari (EI) aurre egitearren sona hartu dute, eta Kobaneko erresistentzia da adibide. EIk hiria suntsitu zuen.

Allisonen eskerrak eman zituen Euskal Herriko “harre-

ra beroagatik”. 12 hiletan 7.000 lagun hil direla kontatu zuen, gehienak kurduak. Frankis- ten bonbardaketekin alderatu zuten: “Hemen duela 80 urte jazo zena gertatzen dabil orain Kurdistanen”. Elkabilun me- zu horri heldu zion Aitziber Irigoras alkate durangarrak: “Zuen samina gertukoa da gu- retzat”. Kobane berreraikitzen laguntzeko eta hango egoeraz informatzeko konpromisoa hartu zuen. Bestalde, Allisonek Gorka Fraile lako preso gaixoak askatzea eskatu zuen.

Memoria egiteko
Ekitaldian Miren Urigoitia zi- negotzi otxandiarra eta Idoia Buruaga alkate elorriarra ere egon ziren. Buruagaren ustez, aberasgarria izango da senide- tza, memoria egiteko ere.



Oier Araolaza kazetaria eta antropologoa da.

“Genero marka zehatzak egozten dizkiegu dantzatzeko jantziei”

Oier Araolaza dantzariak generoaren eta jantzien inguruan hausnartuko du

DURANGO Jone Guenetxea Genero ikuspuntutik gauzak mugitzen ari dira dantza munduan. Hainbat dantza taldek generoaren inguruko gogoeta egiten dihardu. Ildo horretatik, Oier Araolaza dantzari eibartarrak gai hau sarritan landu du Durangon. Oraingo honetan,

Emakumeak dantzan: soinekoarekin zango-trabatuta mahai-inguruan genero berdintasunak jantzieta duen eraginaz jardungo du Araolazak Plateruean, uztailearen 5ean, 20:00etan. Araolazak dioenez, dantzaren inguruan dabilen jendeak argi ikusten du ezin dela “egoera

baztertzaileekin” jarraitu, eta parekidetasuna bermatzeko urratsak eman behar direla. Baina, aldaketa hori nola gauzatu, zalantzak sortzen direla aitortu du dantzari eibartarrak, batez ere jantziei dagokienez. “Oso barneratuta ditugu jantzien inguruko estereotipo ba-

tzuk. Genero marka zehatzak egozten dizkiegu jantziei. Oso zaila da horiekin apurtzea. Eta, gainera, ez dugu horiekin apurtu gura. Tradiziozkoa izatea gura dugu. Horrek eragiten dizkiugu horrelako zalantzak. Sortzen diren aukerek ez dituzte denak asetzen”.

Jantzien inguruan irizpide orokorrik ez ezartzearen aldekoa dela dio Araolaza. “Nik ez nuke araurik jarriko. Hain zuzen ere, eredu bakar bat ezarrita denok ez garenez horrekin gustura egongo, ondorioa ez da ona izango bilatzen dugu helburua lortzeko. Hau da, berdintasunean parte hartu ahal izatea. Horrekin gerta daiteke, zenbaitek arrazoiak aurkitzea berdintasuna ez aplikatzeko”. Jantzien helburua dantzariak, protagonistak harro sentitzea dela gogoratu du. “Eta, horretarako, jantzen duten arropa funtsezkoa da. Jantzi behar duena konbentzituta egon behar da. Arropa hori izango da egokia. Ez ustezko adituok pentsatzen ditugunak. Bestela, porrot bat izango da”.

Araolazaren taldeak urteak daramatza dantza eta generoa lantzen. “Etengabe egiten ari garen gauza da. Beti sortzen dira zalantzak eta erreperitorio berriak. Umeekin ahalegin batzuk egin ditugu, eta gero, nagusiekin. Orain beste pauso sendo bat eman dugu. Aurten egindako ia dantza gehienak genero bereizketarik gabekoak izan dira.

Urrian ekin gura diete Askondoko aterpeko lanei

IURRETA Aitziber Basauri Urriaren erdialdean hasi gura dituzte Askondon aterpea eraikitzeko lanak. Handik bost hilera egongo dira prest 480.000 euroko inbertsioa eskatuko duten lanak. Iurretako Udalak irailean esleituko ditu lanak.

Askondon 850 metro koadro berriztatuko dituzte, eta horietariko 350 estaliko dira. Bost metroko altuera izango du egiturak —30 metro luzeran eta 12 zabaleran—. Udalaren “lehen-tasunetariko bat” da obra hori, diotenez: “Gune estali batean egoteko leku bat edukiko du Iurretak; aisialdirako edo bestelako ospakizunen baterako, euripean egon gabe”. Urrian hasi ziren proiektua lantzen, herritarren ekarpenak ere jasoz. Noizean behin ixteko aukera izatea eskatu dute horiek.

Ur-zurrustak, udarako

Gune horretan ur-zurrustak egongo dira, udarako edo bero egiten duen egunetarako, eta Dantzari auzuneko horma birtartekoan eskalada-murrua jarriko dute. Desmuntatu daitezkeen hiri-altzari mistoak jarriko dituzte, aldi berean, xake edo partxis moduko jokoak dituztenak, eta lurtean joko tradizionalak margotuko dituzte.

Herriguneko hainbat farola aldatuko ditu udalak

MAÑARIA M.O.

Herriguneko hainbat farola aldatzeko asmoa dauka udalak datozen hilabeteetan. Argiteariaren berriztapen hori BI-623 errepidean, Kirikiño kalean eta plazan burutuko dutela adierazi du Endika Jaio alkateak. Farola berriak kontsumo baxuko LED sistemakoak izango dira; beraz, energia eta dirua aurrezteko lortuko dute neurriagaz.

Asteon, martitzeneko osoko bilkuran hartu zuten erabakia udaleko ordezkariak. Horretarako, udal aurrekontuan diru transferentzia bat egitea onartu dute, partida batetik bestera. 72.000 euroko inbertsioa aurreikusi dute, baina Jaio alkatearen arabera, diru-laguntza deialdi batera aurkeztuko dute egitasmoa, eta horren bidez, finantziazioa lortzeko helburua daukate.

Kalte-ordaina eman diote udalari futbol zelaiaren eraikitzaileek

Udalari 145.000 euro ordaintzea onartu dute Solobarria eraiki zutenek

ZALDIBAR Itsaso Esteban Zaldibarko Udala 145.000 eurogaz indemnizatu dute Solobarria futbol zelaiaren proiektuaren arduradunek. Udalagaz sinatu duten akordioaren ara-

bera, 63.000 euro ordaindu ditu Exbasa enpresak, 42.000 arkitektoak eta 40.000 aparejadoreak.

Udal gobernuak asteon azaldu duenez, obra gauzatu zutenek “gaizki egindako guztiak

konponduko” ditu udalak diru horregaz. Izan ere, Arantza Baigorri alkateak dioenez, inauguratu zuten egunetik arazoak iturri izan da eraikuntza hori: “Isolamendua ez zuten behar bezala egin, hezetasun arazoak daude eraikuntza osoan, bi urte dira igogailua ez dabilela...”.

Baigorri nabarmendu du enpresa eraikitzaileen kontra bide judizialetik jo beharrean akordioa lortu gura izan duela udal gobernuak, “arazoa epaitegietan konpondu arte beste hainbat urte itxaron beharko genuelako, bestela”.

Bi milioi euro t’erdiko inbertsioa egin ostean, 2008an futbol zelai berria inauguratu zutenetik, konponketak egiten 45.000 euro baino gehiago gastatu dituela udalak azpimarratu du Baigorri alkateak: “Lardaske-ria handi bat izan zen obra hau”.



Hezetasun arazoak dauzka eraikuntza osoak.

OHZ-ko diru bilketa bere horretan mantenduko dute tipoak egokituta

IZURTZA J. D.

Aldundiak ondasun higiezin gainera balio katastralak eguneratu ditu, 40 urtean lehenengoz. Honek zuzenean eragiten dio udalen eskumena den Ondasun Higiezin gainera Zergari.Ondorioz, Izurtzako Udalak zerga horren tasa-tipoa birdoitu du. Aldaketekin orain arteko diru-bilketaren zenbatekoa mantendu egingo dute. EH Bilduko Gobernu Taldeak balio eguneratzeko prozesuan Aldundiaren jokabidea kritikatu zuen: “Ia ez dio kontsultarik egin udalari, eta egindako ekarpen asko ez dira lotesleak izan”. Tasa bat ezarri gabe utzi dute: landa lurrei dagokiena, arlo horretako informazioa falta zaielako. EAJk gutxiengo tasa aplikatuko zukeela adierazi zuen, herritarrek, Aldundiko gutuna jasotzean, iazkoagaz alderatzeko aukera izan dezan.

Berton Bertokoaren alde, eskola kontseiluek Jaurlaritzara jo dute

Eskola kontseiluek Berton Bertokoaren aldarrikapenagaz bat egin dute



Durangaldeko hainbat ikastetxetako guraso, ikasle eta irakasleak, Abadiñon ateratako argazkian.

DURANGALDEA M. Onaindia
Durangaldeko eskola publikoetan bertako eta sasoiko produktak jatearen aldeko dinamikaren txispa guraso elkarteek piztu zuten, eta orain eskola kontseiluak batu dira. Dokumentu bat onartu dute, eta horren bidez, Berton Bertokoa dinamikaren eskaera posible egin ahal izatea eskatu diote Eusko Jaurlaritzari. Durangoko Zabalarako, eta Elorrio, Berriz, Iurreta, Atxondo, Zaldibar eta Zelaletako (Abadiño) kontseiluek onartu dute aldarriagaz bat egitea. Durangoko Landakon eta Traña-Matienan irailean landuko dute gaia.

Bertakoa eta sasoikoa, eskoletako jantokietan bertan prestatzea eskatzen dute sustatzaileek. Eskola bakoitzari orain arteko eredu zuzena edo zeharkakoa garatzeko aukera ematea eskatu diote Jaurlaritzari, “aukera guztiei babes instituzional eta ekonomiko bera eskaini eta sukaldeko zein jangeletako langileen lan baldintzak errespetatuz”.

Hori posible bihurtzeko, ordea, beharrezkoa izango da Jaurlaritzak 2000. urtean sortutako legean aldaketak egitea. Ez daude ados eredu bakarragaz: “Ez gaude ados jantokiak kudeatzeko inposatzen duten eredu bakar eta baztertzailagaz, non gure seme-alaben elikadura irabazi handiko negozioa egiteko erabiltzen duten enpresa pribatuak”. Hain zuzen ere, enpresa horiek zigortu dituzte

“Ez gaude ados jantokiak kudeatzeko inposatzen duten eredu bakar eta baztertzailagaz”

prezioak adosteagatik, eta zigorren dirua jangelak egokitzeko bideratzea proposatu dute eskola kontseiluek.

Euren ustez, elikadura ezin da hezkuntzatik kanpo ulertu. “Umeak, jaten dutenaren arabera garatuko dira”.

EAJ izan da Durangaldeko alderdirik bozkatuena kongresurako bozketan

Zaldibarren, lehenengoz, Podemos izan da alderdirik bozkatuena

DURANGALDEA J.G.
EAJk indar bozkatuena izaten jarraitzen du Durangaldean. Hala ere, jaitsiera izan du 2015eko datuekin alderatuz gero (697 boto gutxiago). Elkarrekin Ahal Duguk, berriz,

koalizioan gora egin du boto kopuruan. Pablo Iglesiasen alderdiak 831 boto gehiago jaso ditu. Abadiñon indar bozkatuena izaten jarraitzen du, eta Zaldibarren, lehenengoz, babes gehien jaso duen aukera izan

da. EH Bilduk beheranzko joeragaz darrai. 1.506 boto galdu ditu. PSE-EEk eta PPk 100na boto inguru irabazi dituzte aurreko hauteskundeekin alderatuz. Ciudadansek, berriz, 221 boto galdu ditu hauteskunde hauetan.

Durangaldeko ordezkariak
Pilar Ardanza jeltzale durangarrak ezin izan dio eutsi joan zen urriko hauteskundeetan eskuratutako kongresuko eserlekuari. EAJk “egindako lana eta ahalegina” eskertu dizkio Ardanzari. Bestalde, Podemosko Miren Gorrotxategi durangarrak aurreko hauteskundeetan senatuan lortu zuen eserlekuari eutsiko dio.



Joan zen domekan Durangoko institutuko mahaian ateratako argazkia.

Lan mundura sartzen laguntzeko programa

‘Txertatu Merkatuan’, Amankomunazgoko ekintza

DURANGALDEA J.D.
Durangaldeko Amankomunazgoak *Txertatu Merkatuan* izeneko programa garatuko du, Garapeneko euskal agentzien elkarteagaz hitzarmena sinatu ondoren. Lan mundura sartzeko zailtasunak dauzkaten herritarrei laguntzeko ekimena izango da.

Garapen elkarteak Europatik datorren laguntza bat gestionatuko du, eta Durangalderako 81.000 euro emango ditu, hemendik eta 2020ra bitartean inbertitzeko. Amankomunazgoaren aurrekontua ia 90.000 eurora ailegatuko dela azaldu du Aitor Lopez presidentek (EH Bildu).

Amankomunazgoak joan zen asteko osoko bilkuran onartu zuen programara batzea, alderdi guztiek aho batez baieztatuta. Momentuz, ez dago programaren xehetasunen inguruko informaziorik. Lopezen arabera, hitzarmena sinatzea izan da lehen pausoa, eta orain hasiko dira programaren diseinuagaz.

Durangalderako 81.000 euro emango ditu, hemendik eta 2020ra bitartean inbertitzeko



WEB APLIKAZIOEN GARAPENEAN

Goi mailako teknikaria

MATRIKULA: UZTAILAREN 11TIK 15ERA

- Goi mailako teknikari hauek web aplikazio informatikoak garatu eta kudeatuko dituzte, bezero eta zerbitzari inguruneetan.
- Datu baseen kudeaketaz eta zerbitzu, interfaze eta multimedia osagaien garapenaz arduratuko dira.
- Profesional honek enpresa edo erakunde publiko zein pribatuetan gauzatzen du bere jardura, besteren kontura zein bere kontura, web inguruneekin (intranet, extranet, App-ak eta Internet) erlazionatutako informatika-aplikazioak garatzeko arloan lan eginez.



LEA ARTIBAI

Markina-Xemein • 94 616 90 02 • info@leartik.com • www.leartik.com

Harrobi izandakoagaz udalak daukan arazoa bistaratu du isuri batek

Isuri kutsagarri bat gertatu da Atxarteko harrobia izandakoan; astebete daramate garbiketa lanetan

ABADIÑO Itsaso Esteban Abadiño Udalak kontratatuta, isuri kutsagarrien garbiketan espezializaturik dagoen enpresa bat dabil, joan zen barikutik, Atxarteko harrobi izandakoaren ingurunea garbitzen.

Harrobi izandakoan, bertan behera utzita zegoen bidoi batetik *txapapote* itxurako olio isuri bat gertatu zela ikusi, eta Abadiño Udalean abisu eman zuen mendizale elorriar batek joan zen ekainaren 21ean. Urkiolako parke naturalaren barruan horrelakoak gertatzea “delitu ekologiko” onartezina dela azpimarratu zuen mendizaleak, eta erakundeen utziketia kritikatu zuen.

Harrobiaren ustiapena utzi zutenetik, inguru hori zelan berreskuratu eztabaidatu izan dute hainbat erakundetan, baina hondakinek han darraite urteetan. Martitzenean ere, EH Bilduk galdera eginda, gaiaz eztabaidan jardun ziren udalean.

Sailburuari galdezka

Atxarteko isuriaren eta inguru horren egoeraren inguruko galderak egin dizkio EH Bilduko legebiltzarreko taldeak, astean, Ana Oregi Ingurumen eta Lurralde Plangintza sailburuari. “Zenbat isuri gertatu behar dira Ingurumen Sailak Atxarteko harrobietan zeozter egiteko?” galdetu diote, besteak beste.



Mendizale batek ohartarazi zuen udala isuriaraz.

25 umek parte hartuko dute aurtengo udalekuetan

GARAI M.O.

Ikasturtea amaitu, eta udaz gozatzeko prest daude Garai-ko umeak. Udalak antolatzen dituen udalekuetan 25 umek parte hartuko dute aurtengoa. Martitzenean, hilaren 5ean hasiko dira udalekuak, eta 22ra arte ez zaie jolas edota tailerrik faltako. Goizeko ordutegia edukiko dute, egun batez kenduta, Pagoetako parke naturalera eta Debako hondartzara txangoa egingo dutelako.

Bestalde, ur jolasak, txitxi-burduntzia, San Ferminen irudikapena... Ekintza anitzekin disfrutatu ahalko dute 3 eta 12 urte arteko umeek. Jarduera gehienak kultur etxean egingo dituzte. Horrez gainera, ikuskizun bat prestatuko dute, eta azken egunean gurasoei eskainiko diete.

EAJk agerraldian isunaz azalpenak eman gura ditu

Gobernu taldea plataformaren kideekin batu da

BERRIZ Maialen Zuazubiskar Berriz Zergatik? plataformako kideak eta gobernu taldekoak lehen aldiz batu ziren pasa den astean. “Ekarpenak jaso eta beraiei eskaerei erantzun bat emateko batu ginen”, adierazi du Orland Isoird alkateak.

Plataformako kideek udal gobernuari azalpen publiko bat emateko eskatu eta hauek herritarren aurrean agerraldia

egiteko asmoa dutela adierazi zien. “Data zehatzik ez dugun arren, herritarren aurrean agerraldia egingo dugu”, aitortu du alkateak.

Bestalde, plataformakoek “gauza pertsonala ez den arren, erantzuleak aurkitzeko eskatu” eta gobernu taldekoek “ardurak badaudela eta ardura horiek zehaztu beharko direla” adierazi zuten.

Berriztarak San Pedro eta Santa Isabel jaietan murgilduta dabilta

Zapatuan koadrilen eguna ospatuko dute ekitaldi desberdinekin

BERRIZ Maialen Zuazubiskar Martitzenetik —Xabier Amurizak pregoia irakurri eta txupina bota zuenetik— domekara arte, jai giroan murgilduta ibiliko dira berriztarak San Pedro eta Santa Isabeletan.

Astebururako ekitaldi ugari antolatu dituzte herrian, eta hainbat kultur eta kirol ekitaldiz gozatzeko aukera paregabea izango dute herritarrek.

Musika askotarikoa entzungo da aurtengo San Pedro eta Santa Isabel jaietan, eta zenbait erromerietan eta kontzertu eta DJ saioez gozatzeko aukera dago aurtengo jaietan.

Bestalde, kirol ekitaldiak ere ez dira faltako aurtengo jaietan. Gaur arratsaldean neska eta mutilen frontenis txapelketa jokatu dute eta, domekan, berriz, saskibaloia txapelketa dute.

Egun handia

Azken urteetan bezala, zapatua izango da egun handia berriztarrentzat, eta koadrilen eguna ospatuko dute. Lagunartean paela lehiaketan, eta mus, tute eta briska txapelketan arituko dira berriztarak. Herriko gazteek, moxorrotuta, txosnagunean bazkalduko dute, eta ondoren, denek batera, koadrilen jaitsieran parte hartuko dute.



Montevideo Etorbidea · 48200 Durango
Koordenadak: 43.169620, -2.631006

**LAISTER ETXEBIZITZA,
GARAJE ETA TRASTELEKUAK
ERAIKIKO DIRA**

INFORMAZIO
GEHIAGO

946 46 20 41
www.sukia.com

sukia

Estás en tu casa.
Zure etxean zaudu.

BBVA -ren finantzaketarekin

Apatako plaza ingurua oinezkoentzako gune bihurtzeko eskatu dute herritarrek

Kale Irekian prozesutik irtendako proiektuetan lehentasunak markatu ditzakete herritarrek



Eguaztenean Urak Bide taldeko kideak Apatan izan ziren herritarrei azalpenak eman eta inkestak banatzeko.

ATXONDO J.D.

Apatako herrigunean hirigintza arloan dauden arazoak aztertzeke, Kale Irekiak prozesua hasi zuten urte hasieran. Pro-

zesu horretan jasotako iritziak proiektu integral batean batu dituzte, eta, eguaztenean, Apatako jaiak aprobetxatuz, proposamen hori kalean erakutsi

zuten, gura zutenei azalpenak emanez.

Proiektu osoa inbertsio batean aurrera eramatea egingarria ez denez, 11 proiektu txi-

kitan banatu dute. Herritarrek proposamen horietan lehentasunak edo premia nagusiak markatzeko aukera dute, eta, ondoren, udal kontuek ahalbidetzen duten heinean gauzatzeko joatea da asmoa. Datorren asteko barikura arte udaltxean bete daitezke premiak markatzeko inkesta txartelak.

Oro har, plaza "herriko bihotza" dela-eta, "inguru hori guztia oinezkoentzako gune bat izan dadila" eskatu dute, eta "har daitezela behar diren neurriak kotxeak hortik kentzeko", dio prozesua aurrera eraman duen Urak Bide Taldeko Saioa Zuazubiskarrek.

Horrela, erdiguneko trafikoa arintzeko bidean, Arrazola edo Axpera doazenentzat sarrera

Femosa ingurutik eta eskola atzealdetik bideratzea da eskaeretakoa bat. N-636an trafikoa erregulatuko lukeen biribilgune bat dagoeneko aurreikusita dago Femosa parean, etorkizuneko industriagunerako autontzat ere balioko lukeena.

Trafikoa modu horretara bideratuta, erdigunea zeharkatzen duen bideko zati handi bat erreki eta noranzko bakarrera birmoldatzeko aukera irekiko litzateke. Baita N-636rako bidegurutzean biribilgune bat egiteko aukera ere.

Eredu horregaz aparkaleku bat egin daiteke eskola atzealdean eta kanposanturako bidean; plaza ingurura doazeneke han utzi ahalko lukete autoa, erdigunera sartu beharrik gabe.

Bizikletentzako bidegorri sarea osatzea eta berau Apata erditik igarotzea da prozesutik eratorritako beste proiektu bat. Izan ere, "mugikortasun jasangarria bultzatu gura bada, ezin da atzealdetik eta albotik igaro. Biderik zuzenena erdigunea da", dio Zuazubiskarrek.

Leyre Balerdiren lanak iragarriko ditu jaiak

Leyre Balerdi: "Musika eta kolore eztanda horren emozioa islatu gura izan dut kartelean"



Aurtengo kartel irabazlea.

ELORRIO M.O.

Ferixa Nausikoetarako kartela aukeratuta dago. Leyre Balerdi elorriarraren *Txupinazoa*

lanak iragarriko ditu jaiak, eta 500 euro jasoko ditu lehiaketaren babesle den ANBOToren eskutik. "Beti gustatu izan zait txupinazoaren unea, denok plazan itxaroten gaudeneko. Musika eta kolore eztanda horren emozioa islatu gura izan dut kartelean", dio Balerdik. Arkitektoa da, eta hortik datorkio diseinurako afizioa. 2010ean ere irabazi zuen lehiaketa.

Berio-Otxoa eguna

Bestalde, astelehenean Berrio-Otxoa eguna ospatuko dute. 12:00etan meza egongo da, 13:00etan luntxa, eta 20:00etan abesbatzaren kontzertua.

Iraurgi eta Lobato garaile frontenisean

MALLABIA M.Z.

Mikel Iraurgi abadiñarrak eta Edu Lobato arabarrak irabazi dute Mallabiko frontenis txapelketa.

Asteburuan, 15 orduz, Euskal Herri guztitik etorritako 24 bikotek parte hartu dute Mallabiko frontenis maratoian. Bertan, Mikel Iraurgi abadiñarra eta Edu Lobato arabarra izan ziren garaileak, Jon Azkarraga eta Oier Irazabal elorriarrak finalean menderatuta.



Auzo konposta egiteko gune berri bi aukeran

Indusibideko esperientzia pilotua positiboa izan da

OTXANDIO J.D.

Herri-olatik sustatuta, Indusibiden auzo konposterako lehenengo gunea jarri zuten iaz. Esperientzia pilotu hori positiboa izan da, eta auzo konposterako gune berri bi martxan jartzekotan dira: bata etxebizitzak sozialak dauden inguruan (Mainerrotako batzuk ere bai), eta bestea gaur egun Indusibide dagoen inguruan: "Azken gune horretan jende asko dago auzo konposta egiteko prest, eta zain daude. Horiek bitan banatuko ditugu auzo konposterako gune berriagaz", Juan Mari Otxandianoren esanetan. Izan ere, orain arte "hilabete batean konposterako zulo bat bete egi-

ten genuen, eta hori azkarregi zen". Auzo konposterako gune bakoitzerako 21 familia da kopuru proposa, eta, batean zein bestean, badute kopuru hori.

Hirugarren gune bat jartzeko asmoa ere badute: Mainondoko eskolan, eta irailean hasiko den ikasturtetik aurrera, hango jantokiko hondakinak aprobetxatuko dituzte.

Irailean ikasturtea hastegaz batera, eskolan ere konposterako gunea jarri gura dute

UDAKO JAIALDIAK **UZTAILA**
www.musikaire.eus

- 01/ **JESÚS HERRERA "DANTZARI"**
- 02/ **LA M.O.D.A**
- 08/ **QUANTIC & HIS ORCHESTRA**
- 09/ **ROCKY DAWUNI**
- 10/ **DANTZA GARAIKIDEA**
- 15/ **ABOU DIARRA**



Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

Aisia Hoteles-eko asteburuko egonaldiaren irabazleak:

DEBA
Nere Portillo Garramiola
ORIO
Olatz Baños Municha



EKAINEKO IRABAZLEAK

- > **HITZ LIBURU-DENDA.**
Ekaitz Muguruza Gonzalez.
- > **AKEBASO.**
Uxune Martinez Mazaga.
- > **BAGOAZ BIDAIAK.**
Amatza Abasolo Txabarri.
- > **UNAMUNZAGA HORTZ-KLINIKA.**
Ane Solagaistua Zabala.
- > **SALTSAN KATERIN.**
Maria Begoña Zugaza-Artaza.

Zornotzako Karmen jaiek Udabarri dantza taldea izango dute pregoilari

Sortu zeneko 50. urteurrena du Zornotzako dantza taldeak aurtten.



Uztailaren 15ean izango da jaiei hasiera emango dien pregoia

ZORNOTZA Itsaso Esteban Uztailaren 15etik 27ra Karmen jaiek ospatuko dituzte Zornotzan, eta, asteon, jai batzordetik landutako egitaraua aurkeztu dute. Aurtten Udabarri Dantza Taldea izango da pregoilaria. Taldeak sortu zeneko 50. urteurrena ospatzen dihardu, eta 1966tik hona egindako lana eskertzeko modua da: “Euskal tradizioa eta folklorea sustatzen lan handia egiten dute.

Mendi irteerak eta euskal jaiek antolatuta izan dituzte, besteak beste. Azken urteetan, nazioarteko hainbat musika eta dantza talde euren ekimenez etorri dira Zornotzara. “Hori dena eskertzeko eta goraipatzeko lana da”, azaldu du Andoni Agiberebeitia alkateak.

Mozorra Eguna Uztailaren 27ko Mozorro Eguna nobedadeekin dator aurtten

Santanatxu egunean: “Partaidetza handitzeko, egunari bueltatxo bat ematen saiatu gara”, arrazoitu du Mitxel Etxebarria kirol eta kultura arloko zinegotziak. Koadrilekin adostutako aldaketa dela adierazi dute. 60ko hamarkadara bidaiatzeko gonbita egingo dute; hamarkada hori izango da mozorrotzeko gaia, eta ekitaldi denak horren bueltan antolatu dituzte. Aurtten ez dute karrozen desfile-

rik egingo; ikusleen aldetik ikusmin handia eragiten duen arren, parte-hartzeak behera egin duela azaldu dute. Talent Show-ak ordezkatzeko du desfilea. Norbanako edo lagun taldeek 60ko hamarkadari lotutako ikuskizunak erakutsiko dituzte eszenatokian. Gauean Elvisen tributo talde batek kontzertua eskainiko du.

Danborradari “bultzada”

Danborradari “bultzada berri bat” emateko saiakera egin dute aurtten, Etxebarriaren esanetan: “Seriotasuna ematen saiatu gara, antolakuntzan zein entseguetan”. 250 bat herritarrek parte hartuko dute danborradan, musikari, kantinera, sukaldari, zaldun eta antortxeroen artean. Aurtengo danborradak zuzendari berria du: Joe Gonzalez zornotzarra. Aurtten arte kargu horretan egon den Iban Ibarretxek egindako lana ere goraipatu dute. “Lan bikaina egin du, eta asko eskertzen dugu”.

Danborradaren eguna ere nobedadea da: uztailearen 24an egingo dute, Santiago bezperan. Ahalik eta herritar gehien erakartzeko hartu dute erabakia.

Musika eta antzerkia

Urtero lez, musika kontzertuak dira jailetako indarguneetako bat. Ken Zazpi, Laboa Jazz, Kiko Veneno, El Consorcio, Las Tea Party eta Delorean dira Zornotzara etorriko diren taldeetako batzuk. Antzerkiari dagokionez, Markeliñe konpainia zornotzarrrak ‘Crusoe’ kale antzerki berria eskainiko du, besteak beste.

SEI HANKAKO MAHAIA

JULIAN RIOS
SQ-2D



Geratzeko etorri gara

Urtebete da instituzioetan sartu ginela. Urtebete da bunkearra barrutik ikusi genuela eta immobilismoz goitik behera zigilatutako leihoak irekitzen saiatzen hasi ginela. Toki-instituzio baten ahalmena handia da, baina ez da ia ezertxo ere egin. Herritarrek instituzioetan parte hartzeko bidea aspaldi ezereztu zen, eta testigantzazkoa baino ez da orain, lau urtetik lau urtera botoa emateko baino ez da eta. Gero, herritar zein erakundeek ez dute erraz izango instituzioetara jotzea, asko izango baitira bidean aurkituko dituzten oztopoak. Izan ere, aurtten, herritar eta elkarten eskakizunik gehienak bazterreratu egin dira, zokoratu, batere aukerarik eman gabe. Entzuteko eta parte hartzeko kultura ia ez da existitzen.

Aurtten onartutako toki-instituzioen lege berriaren gerizpean, erakunde eta elkarten partaidetza aktiboa eta benetakoa sustatu nahi zen, baina udaleko batzorde informatibo itxi eta mugatuetan, eta jakina, ezetza eta bazterketa izan da herriak jaso duen erantzuna. Zergatik diote beldurra jendearen parte-hartzeari instituzioetan?

Auzoetan, lantokian zein bestelako esparruetan antolatzeke ordua da. Aliantzak ehuntzeko ordua da, eta elkarguneak sortzekoa, horixe baita boteretsua izateko eta herri ahalmena sortzeko modu bakarra. Herri indartsu bat, gizarte indartsu bat bere buruari entzuten diona da, autokritika egiteko gai dena, eta, batez ere, gizarte-eragile guztiekin aliantzak egin eta elkarguneak sortzen dituen.

Borrokan eta eraikitzen jarraituko dugu. Eta ez dugu urrats bakar bat ere emango atzera, bertan geratzeko etorri gara eta.

**Erredakzioan itzulia*

DURANGALDEA ASTEON

Ramadanari agur esango diote hilaren 6an

ELORRIO > Musulmanen elkarte bat sortu da Elorrrion, eta, hilaren 6an, eguazteenan, elkarrekin esango diote agur Ramadanari. 09:00etatik eguerdira bitartean, jaia egingo dute kiroldegian, eta herritar guztiak gonbidatu gura dituzte. Jendeak euren elkarteaz egazutzea gura dute, kulturartekotasunean oinarrituta.

Ezkurdiko iturria berriztuko dute

DURANGO > 1862an eraiki zen Ezkurdiko iturria, herriari ura zerbitzatzeko. Orduetik, iturri enblematikoa izan dela esan du udalak. Baina, uraren gastua murrizteko asmoz, duela urte batzuk zerbitzua eten zuten. Orain, berriro ura emateko moduan ipiniko dute 25.000 eurogaz, eta gero, artistikoki konponduko dute.

‘Txitxarriloak’ bueltan datoz Durangora

DURANGO > Uda partean Durangoko Udalak dantzaldiak antolatu ohi ditu, antzinako txitxarriloak, hain zuzen ere. Aurtengo uztailean ere, lehen lau domeketan, orkestragaz dantza egiteko aukera eskainiko dute Ezkurdin –euria eginez gero Landako Gunean–. 19:00etatik 21:00etara izango dira saioak.

IRITZIA

✉ astekaria@anboto.org
astekaria 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

Anbotoren lagunak
Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org
Tel.: 946 816 558
lagunak@anboto.org

Andaluziara edo Costa Doradara bidaiara irabazi ezazu Anbotoren Lagun eginez

Anboto Lagunen artean lau pertsonentzako (2 heldu + 2 ume) astebeterako bidaiara zotz egingo dugu uztailearen 15ean

EROSKI bidaiak
Anboto? Ezazu lagun!

> Berbaz

Ane Ibarzabal | Kazetaria | Durango, 1982

“Audientzia oso garrantzitsua da, baina ezin gara horregaz itsutu”

Madrilgo Irrati eta Telebistan ari diren Profesionalek Elkartek emandako Zilarrezko Antena jaso du



Davi Vegal/Mediaset-España

> BERBAZ Aitziber Basauri
Telecinco kanaleko goizeko albistegia gidatzen egindako lanagatik Zilarrezko Antena jaso du Ane Ibarzabal kazetari durangarrak. 02:00etatik 09:00etara egiten du lan; atzekoz aurrera bizi da. “Ez da erraza, baina, aukera handia da niretzat. Askok ari naiz ikasten”.

Nola jaso duzu saria?

Askok harritu ninduen, ez nuen espero, inolaz ere. Twitter bidez aipamenak heltzen hasi ziren, eta pentsatu nuen: “nik sari bat? erratu egin dira!”. Gerora, jaki-

narazpena jaso nuen. Hala ere, eskuan izan dudana ezin sinetsi! Oso pozik eta esker oneko nago. Ilusio handia egiten dit lankideek nire lana aitortzea.

Hamar urte egin dituzu Madrilgo telebistan lanean. Denetarik egitea tokatuko zitzaizun. CNN+ kanalean hasi nintzen, Cuatros gero, eta orain Telecinco nabil. Denetarik egin dut: bideoak, zuzenekoak, erreportajeak, albistegiak aurkeztu, ekonomia saioak, kirolak, bereziak... Oinarrian, ikasi eta ikasi egin dut; eta, geratzen zaidana!

Madrilgo puri-purian dago gaurkotatua. Nola bizi duzu? Gustatzen zait. Madrilgo egoten delako dena. Bizitza politikoa, judizialak... hau du kokaleku. Gure etorkizuneari eragin- goren erabaki asko hartzen dira hemen.

Nor da politikari edo pertsona- rik mediatikoa? Kamera ja- ten duen horietakoa?

Ez nuke jakingo esaten. Alderdi berriekin telebista platoetan zaildutako lider berriak sortu dira, oratoria abilezia gehiago dutenak. Dena den, uste dut ez

dagoela, karisma edo empatia- gatik, edota jendetza mobiliza- tzeko duen gaitasunagatik be- reziki nabarmentzen den poli- tikaririk.

Iritzi publikoan duzun eraginaz jabetzen zara?

Ez dut inolako asmorik horretar-ako. Kazetaria naiz. Istorioak

“*Bai platoan bai kalean zoriontsua naiz, eroso sentitzen naiz bietan*”

“*Ofiziorik politena dut, gehien betetzen nauena. Ezingo nuke beste ezertan lan egin*”

kontatzea da nire lana, gerta- tzen dena ahalik eta erarik zo- rrotz eta objektiboenekin konta- tzea. Ikusleak informatuta ego- teko eskubidea izan dezan, eta bere iritzia landu dezan.

Nola ikusten duzu Madrilgo Euskal Herriko egoera?

Zorionez, denbora bat da Eus- kal Herriak ez dituela elkarri- zketak guztiak ardazten, ez dituela egunkari nagusien azalak bete- tzen. Albiste ona da nire herriaz horrenbeste ez hitz egitea.

Bokazioz zara kazetari? Beti nahi izan duzu telebistan aritu? Bai, hala da. Munduko ofizio- rik politena dut, gehien betetzen nauena. Ezingo nuke beste eze- rtan lan egin. Ez da beti erraza izan. Denok moduan, une gogo- rrak bizi izan ditut, baina hau da benetan gustatzen zaidana. Telebistan lan egin gura izan dut zentzua dudanez geroztik.

Pertsona publikoa izateak zu- re bizitza pribatuan eragin du? Ez da ezer aldatu. Nire bizitza neurea da: metroa eta autobusa

hartzen ditut, betiko jendea dut inguruan... Ez dut neure burua pertsona ezaguntzat. Beste edo- zein lanbide lakoa da nirea, ga- rrantzi publiko handiagoko due- na. Besterik ez. Gura ez baduzu, ez zara aldatzen.

Platoa ala kalea duzu nahiago? Ama edo aita, zein maite duzun gehiago galdetzea lakoa da hori. Ezingo nuke aukeratu. Bai pla- toan bai kalean zoriontsua naiz, eroso sentitzen naiz bietan. Al- biste dagoen tokian zaudela- ko gustatzen zait kalea. Hortxe ari da gertatzen dena, eta jen- de eta istorio asko ezagutzen di- tuzu. Bidaiatu egiten duzu. Bai- na, izugarri gustatzen zait plato- ko adrenalina, bi ordu eta erdi- ko zuzeneko albistegian bizi den tentsio informatiboa.

Korrespontsal moduan aritzea gustatuko litzazuke, ezta?

Bai. Ikus-entzunezko komuni- kazioa ikasi nuenean, amete- tako bat nuen korrespontsal iza- tea, Erroman. Vatikanoa atzean nuela zuzenekoak egiten ikus- ten nuen nire burua. Batek daki!

Zein albiste aurkeztea egin zai- zu gogorren?

Zoriotzarrez, albiste txar asko daude, eta kazetariok kontatze- ko betebeharra dugu. Itzela iru- ditzten zait, adibidez, errefuxia- tuen drama, eta nola Europak beste aldera begiratzen duen, autoritateen ekintza falta... Bio- lentzia matxista kasuak ere bai. Zerbait ari gara txarto egiten gi- zartean gizon batek pistola har- tu eta emaztea hiltzeko. Hor dira Estatu Islamikoaren atentatuak ere. Halako gertaerak konta- tu behar dituzunean lan egitea zaila da, baina, indarrak atera behar dira, eta egin.

Nola bizi duzu audientzien ge- rra? Non dago marra gorria?

Audientzia oso garrantzitsua da, horrek kendu edo ipintzen gaitu, baina ezin gara horregaz itsutu, horren menpe bizi, ez da- go-eta norberaren esku. Eginda- ko guztian grina jarri behar da, egunero gogor lan egin, eta po- zik sentitu, hori guztia transmi- titu egiten da-eta. Gainontzekoa ez da zure kontua.

Durango eta Madril artean bizi zara. Ohitzerik badago?

Ez dago ohitzerik maletari lo- tuta bizitzera familia ikusteko. Gurago nuke gertu izatea. Bai- na, hiru ordu eta erdira etxean nago. Gaur egun Madrilgo dut bizimodua. Bihar, batek daki.

JAI AK!

Zaldibar

2016ko UZTAILA



Zaldibarko udalak
Jai zoriontsuak opa deutsuez
zaldibartar guztioi



ZALDIBAR
Elizateko Udala

ZALDIBARKO JAIEN EGITARAUA

UZTAILAK 1, 2 eta 3

XXVI. areto-futbol txapelketa kiroldegian

UZTAILAK 2, zapatua

16:30 IX. Eskualdeko pilota txapelketako finalak Olazar pilotalekuan.

UZTAILAK 3, domeka

08:30-14:00 XXXIII. Argazki Rallya.

10:30 Herrialde mailako eskola arteko txirrindulari proba; irteera udaletxe ondotik.

UZTAILAK 4, astelehena

16:30 Lehen eta bigarren urteko junior mailako txirrindulari lasterketa. Helmuga: Euskal Herria etorbideko 12an.

UZTAILAK 7, eguena

18:30 Herritarren artean Donien Atxa ipiniko da udaletxe aurrean. Ondoren, jaietako kartelen lehiaketako sari banaketa.

19:00 Aureskua Castet elkartearen omenez; jarraian jaien hasiera iragartzeko txapligua jaurtiko dute Castet elkartekoak. Gero, kalejira Koral elkarteko trikitilariekin eta buruhandiekin.

19:30 Herri batukada txosnagunean hasita.

20:00 Odoloste jana Bekoetxe kalean.

21:30 Herri afaria txosnagunean.

23:00 Kontzertua: NEVADAH, ZAIN eta THE CRAZY WHEELS

UZTAILAK 8, barikua

17:30-20:30 Nagusien eskularen erakusketa jubilatuen etxepean.

18:00 Pilota partiduak Olazar pilotalekuan.

18:30 Burrumba Elektrotxaranga eta mojitoa.

19:30 Kantu poteoa Felipe Zelaietarekin udaletxetik hasita.

22:30 Discomusic DJ JOSE MARI, Olea kalean.

22:30 Kontzertua: ARKADA SOCIAL eta JOXE REPLAY taldeekin.

UZTAILAK 9, zapatua

11:00 Pilota partiduak, Valentzia-Zaldibar Olazar pilotalekuan.

11:00- 13:00 Umeen jolas-parkea eskoletako jolastokian.

16:00- 19:00 Umeen jolas parkea eskoletako jolastokian.

14:30 Gazteen bazkaria Gaztelekuan.

17:00 Gazteen I. Artisau Azoka txosnagunean.

17:30-20:30 Nagusien eskularen erakusketa jubilatuen etxepean.

19:00 Afari-merienda herrikoia udaletxeko plazan:
- sardinak (euro 2)
- solomoa (euro 1)

19:30 Elektrotxaranga eta mojitoa.

23:30 JOXPA erromeria.

03:30 Kulero, tanga eta galtzontzillo lasterketa.

UZTAILAK 10, domeka

10:00-13:00 Arku-tiroa ume eta helduentzat, Olazarko Arku taldearen galerian.

11:00 Kalejira trikitilariekin.

11:45 Umeen euskal dantzak Zaldia plazan.

17:00 Umeentzako entzierroa gezurretako zezenekin udaletxe inguruan.

17:30-20:30 Nagusien eskularen erakusketa jubilatuen etxepean

18:00 Balkoitik balkoira bertso saioa Zaldia plazan
- Onintza Enbeita
- Jone Uria
- Uxue Alberdi

22:00 Jaietako argazkien emanaldia udaletxeko plazan.

23:00 Su artifizialak Gaztetxearen ondoan.

UZTAILAK 16, zapatua

7:00-15:00 Mendi martxa neurtua Zaldia plazan hasita.

18:00 XXXIII. Argazki Rallyaren erakusketa eta sari banaketa liburutegi zaharrean.

BARATZA FRUITADENDA URDAITEGIA
Sta. Isabel, 2 behea
Tel.: 946 225 063
Zaldibar, Bizkaia

PAULAREN ZOKOA KAFE
07:00etatik aurrera zabalik
Euskal Herria, 18
946 550 481 - Zaldibar
Paularen Zokoa

IMENDIA
Bideo alokairua
Fotokopiak
Prentsa salmenta
Gozokiak
Tel./Faxa: 946 827 413
Zalduasolo E.7 - ZALDIBAR

etarte
www.etarte.com
Barne diseinua
Obra proiektuak
Jarduera legeztatzeak
Erreformat
Altzariak
Barne diseinatzailea:
Garazi Burgoa Zuazo
Euskal Herria z/g. ZALDIBAR
T/F: 946 030 416 - 635 717 360
info@etarte.com

Txosnaguneak kokapen berria du, eta urtero txandakatzen joatea da asmoa

Aurtengo jaietan San Jose parkearen eta ospitalearen artean atonduko duet txosnagunea

> **JAI AK** J.D. / I.E.

Uztailaren 7tik 10era arte ospatuko dituzten Zaldibarko jaietako nobedade nagusietako bat txosnagunearen kokapena izango da. Aurtengo Jose Antonio Agirre parkearen eta ospitalearen artean kokatuko dute. Delfin Zubizarreta zinegotziak azaldu duenez, azken urteetan txosnagunea egon den lekuko auzokideen eskaria izan da txosnagunea lekuz aldatzea.

Aurrerantzean, txosnagunea urte bakoitzean herriko leku desberdin batean ipintzea da udal gobernuaren proposamena: “Ez daitezten beti auzokide berak izan jaietako zarataren eragina pairatzen dutenak”,

Zubizarretaren berbetan. Txosnagune berri horretan izango dira, besteak beste, Zaldibarko jaietako kontzertuak eta beste hainbat ekitaldi.

Zapiko irudia

Beste nobedade bat jaietako zapiaren ingurukoa da. Udalak aurtengo jaietarako atera duen zapiak Zaldibarko Udalak aurrerantzean erabiliko duen irudia dauka: zaldia eta zuhaitza barik, Eitzagako errotako armarrarian oinarrituriko hiru otso agertzen dira berde koloreko zapi berrian. Jaietako aurkezpenean adierazi zutenenez, 300 zapi eskuragarri daude herriko tabernetan.



Delfin Zubizarreta zinegotzia eta Arantza Baigorri alkatea aurkezpenean.

Valentzia eta Zaldibar elkarren kontra ariko dira esku pilotan

> **PILOTA** J.D.

Valentziako eta Zaldibarko pilotariak elkarren kontra jarriko dituen pilota partiduak antolatu ditu Zaldia.K.E-ek uztailearen 9an, 11:00etan. Han 33 gramoko pilotekin jokatzen dute, eta hemen 100 bat gramokoekin. Zaldibarren 66 gramo ingurukoak erabiltzeko dituzte binakako hiru partidurako.

Uztailaren 8an, 18:00etatik aurrera, berriz, Olazar eta Biharko Izarrak txapelketan lau t'erdiko txapelak jantzi dituzten Zubizarretak eta Alberdik neurri horretan elkarren kontra jokatuko dute. Binaka, Bakaikoa-Olaizola eta Errandonea-Martinez bikoteek indarrak neurtuko dituzte.

Herritarrek osatutako batudakak girotuko du eguen arratsaldea

Iaz 20 lagun batu zituen, eta aurtengo kopuru hori handitzea itxaroten dute

> **BATUKADA** J.D.

Kaleetako jai giroa sortzeko kanpoko elektrotxaranga zein taldeetara jo beharrean ibiltzen zirela-eta, iaz herri batukada antolatu zuten, lehenengoz, kale animazioa zaldibartarren artean sortzeko.

Nork bere danbor, yembe edo perkusio-instrumentuak hartu, eta 20 bat lagun ibili ziren kalean giroa sortzen. Antolatzaileek balorazio positiboa egin zuten, eta aurtengo ekimena errepikatzea erabaki dute.

Danbor askoren danbatekoak erritmo berean eramateak entsegu asko eskatzen ditu. Iaz hiru-lau oinarritzko danbor erritmogaz bideoak osatu, eta herritarren artean banatu zituzten. Ondoren, deialdi bi egin zituzten entsegu orokorrak egiteko. Aurtengo eredu berdina erabiliko dute. Atzo arratsaldean batu ziren, lehenengoz, eta uztailearen 7ko herri batukadaren aurretik beste behin ere batuko dira. Iazko lehenengo aldiko jende kopurua handitzea dute helburu.

Kontzertuak gauean

Egun berean, uztailearen 7an, bestelako musika doinuak ere izango dira. Herri afariaren ostean, rock musika nagusituko da txosnagunean Nevadah, Zain eta The Crazy Wheels taldeen eskutik.



Iazko herri batukadako irudia.

Olinpiadak barik, gazteen artisau azoka antolatuko dute

> **AZOKA** J.D.

Aurtengo lehenengoz, artisau gazteen azoka antolatuko dute, uztailearen 9an. Txosnagunean izango da, gazteen bazkariaren ostean. Azken urteetan bazkalosteak elkarrekin arteko olinpiadekin girotu dituzte, baina aurtengo ekimen horri atseden ematea eta horren ordeaz azoka antolatzea erabaki dute. “Lan-

gabezia gazteek pairatzen dute batez ere, eta gazteei zuzendutako azoka bat interesgarria irudituko zitzaien”, dio Eneko Iraeta antolatzaileetako batek: Guztira, dozena bat postu jarriko dituzte, eta ia denak Zaldibar edo Durangalde ingurutik datoz. Askotariko postuak izango dira: nekazaritza, bitxigintza, larrugintza...



Azkonizaga

Ortuzar, 1 · Izurtza (Bizkaia) · Tel./Faxa: 946 810 652
 azkonizaga@azkonizaga.com
www.azkonizaga.com



ZAGAR
SISTEMAS TÉRMICOS Y
CONTRA INCENDIOS

ERAIKINEN ENERGIA · ERAGINKORTASUN ZIURTAGIRIA

SISTEMA TERMIKOAK
Klimatizazioa
Aireberritzeko instalazioak
Gasa
Energia berriztagarriak

SUTEEN AURKAKO INSTALAZIOAK
Su-itxalgailuak
Suteetako ur-harguneak
Suaren kontrako ateak
Suteak antzemateko instalazioak

Mallabiko industrialdea - Solozabal Pol. - Pab. 7 - 48250 ZALDIBAR
 Tel.: 946 826 673 - Faxa: 946 826 671 - zagarsistemas.com



Libre eta zabalik!



Libre eta zabalik!

NEGUGOGOR TABERNA



Zaldia Elizateko plaza, 8
 Tel.: 946 827 003



1993tik, urtero, "Euskal Herriaren aldeko borrokan hildakoak" omentzen dituzte Santamañezarren.

Castet Elkarteko kideek jaurtiko dute, uztailearen 7an, jaien hasierako txapligua

Uztailearen 7an, 18:30ean Donien Atxa altxatu eta gero, beraien omenezko aurrekua jaso ostean botako dute Castet Elkartekoek txapligua, 19:00etan.

> TXUPINAZOA Itsaso Esteban Castet Elkartek botako du, uztailearen 7an, Zaldibarko jaien hasiera iragarriko duen txapligua, udaletxeko balkoitik. Elkarte horrek idatzi du aurten jai egitarauaren hasierako agurra, eta Casteten ikusmoldearen erakusle da testu hori. "Jaia eta borroka" uztartzeko elkarte-kideek duten joeraz dihardute testu horretan, eta jaietan ere gogoan hartu dituzte hainbat lagun: "Kurduak, palestinarak, Mohamed Abdelaziz, Rene Martinez eta Andres Bodalo", kasurako. Jaietan egon arren, "sistema patriarkal eta kapitalistak zapalduta bizi garela" ez dutela ahazten azpimarratu dute.

Bestalde, etxeko lanen banaketa parekidea aldarrikatu du Castet Elkartek jaien hasierako agur horretan, eta eraso sexista, arrazista, eta xenofoboaren aldeko aldarria ere ezabatu du. Elkartekideen berbetan, "gizarte aldatzeko grina duen jendearen bilgune izan da 25 urtez Castet", eta Zaldibarko jaietan ere horrela izatea gura dute.

Zaldibarko abertzale ezker-tiarren bilgune izateko sortu zuten, 1991n, Castet Elkartea. Eta bizitzaren ikuspegi ezker-tiar eta abertzalea dutenen elkar-gunea da gaur ere. Elkartearen sorreran parte hartu zuen Gaizka Zabartek gogora ekarri du Elkartea martxan jartzera bultzatu zituen helburua: "Sozializazioarako leku bat behar genuela erabakita heldu genion Castet Elkartea sortzearen ideari". Hainbat lagun bildu, eta 1937ko Santamañezarreko borrokan tropa frankisten kontra borrokan hil zen Castet komandantearen izena ipini zioten Elkarte berriari.

Memoria historikoa

"Sortu genuenetik, memoria historikoa lantzea izan da elkartearen lehentasunetako bat: Euskal Herriaren aldeko borrokan jausitako guztien memoria gordetzea", azpimarratu du Zabartek. Helburu horregaz, 1993tik, apiril guztietan, 1937ko apirilaren 25eko Santamañezarreko borroka gogoratzeko ekitaldiak antolatu dituzte Castet

Egunean: Santamañezarrera igoerak, ekitaldi politikoak, trintxeren garbiketak, frankismo sasoitik herriko hainbat etxe ataritako plakak kentzea...

Omenaldia

Memoria historikoaren arloan Castet Elkartek egiten duen lanaren adibidea da, udalagaz elkarlanean, frankismoak hildako zaldibartarren omenez urrirako antolatzen dabilzan omenaldia. Altxamendu faxistaren 80. urteurrena betetzen den honetan, aho batez erabaki du Zaldibarko Udalak omenaldi hori antolatzea. Frankismoak herrian hildakoen inguruko ikerketa eginga dauka Castet Elkartek, eta lan horretan oinarrituta egingo dute ekitaldia.

Belaunaldien artekoa

Zaldibartar belaunaldi berriak eten barik joan izan direla Castet Elkartea berritzen, horixe baloratu du Gaizka Zabarte elkartekideak urteotako lorpen handienetakotzat. "Gazte askoren lehenengo sozializazio lekua izan da Castet Elkartea: herriko



"Ezker-tiar eta abertzaleen bilgune" izan gura du Castet Elkartek.



Frankismoko plakak kendu zituzten, duela urte batzuk, Elkarteko kideek.



Belaunaldien arteko topaleku izateaz harro dago Castet Elkartea.

gazte askok egin izan dute tabernako barran lan, esaterako. Oso pozik gaude, Castet Elkartea belaunaldi diferenteen topaleku bat baita orain ere", azpimarratu du Zabarte elkartekideak. Urteetan, elkartean sortutako ideia askok herrian proiektzio bat izan dutelako ere harro dauka Castet-eko kideak.

Jaiei hasiera emateko aukeragaz momentu gozoa igarotzen badabilta ere, beraien egoitza Herriko Tabernen sumarioan dagoelako kezkatuta ere badaude Castet Elkartekoak: "Euskal Herritar askorena bezala, Casteten izena ere Audientzia Nazionalean dago, eta zalantza juridiko horretan bizi gara".

kizkitza
taberna

ETXEKO BEREZITASUNAK
PINTXOAK - OGITARTEKOAK

Tel.: 946 033 310
Euskal Herria etorbidea, 30
48250 ZALDIBAR - Bizkaia

ORGIN
taberna

Euskal Herria kalea, z/g
ZALDIBAR

MUELLES
ZALDUA S.L.

**MALGUEN FABRIKAZIOA
OROKORREAN**

Tel.: 946 827 801 · Faxe.: 946 827 654
San Andres etorbidea, 1
48250 ZALDIBAR
a@muelleszaldua.com
www.muelleszaldua.com

Trikitizaleek bi hitzordu dauzkate asteburu honetan

Iurretan Amatzako II. trikitixa jaialdia egingo dute bihar, eta gazteen III. txapelketa Elorrrion, domekan

> MUSIKA

Itsaso Esteban

Trikiti doinuen Durangaldeko zaleek hitzordu bi izango dituzte asteburu honetan gozagai. Bihar, uztailearen 2an, Iurretako Amatzako auzoko San Martin jaian barruan, Amatzako II. Trikitixa jaialdia egingo dute. Lau trikitilari eta panderojole bikote eta bi erromeria talde entzuteko aukera dakar jaialdi horrek, bihar, 20:00etatik aurrera, Iurretako Amatzako auzora.

Huntza eta Kupela talde gipuzkoarrak; eta Aburruzaga eta Urrutia, Eneritz eta Edurtzeta, Laja bigarrena eta Narbaiza, eta Jauregi eta Julene bikoteak ari-tuko dira Amatzako trikitilari jaialdian parte hartzen. Antolatzaleek azpimarratu dute oso pozik daudela, joko duten lau bikoteetako bi bizkaitarrak di-

relako: Aburruzaga eta Urrutia, eta Ene Bada taldeko kide izandako Durangaldeko Eneritz eta Edurtzeta.

Hamar minutu bakoitzak

Hamar minutuz joko du jaialdiko parte-hartzaile bakoitzak, eta “emanaldi laburrak izango direnez, erreperitorio berezia prestatuko dute Amatzako jaialdirako”, Egoi Petite trikitilari eta antolatzalearen berbetan. Talde bakoitzaren hamar minutuko emanaldia entzutea, “sei bikote ikusteko modu oso atsegina eta arina” dela azpimarratu du Petite antolatzaleak.

Jaialdia amaitu eta gero, afaltzera elkartuko dira trikitilari eta trikitizaleak, Amatzan. Afalostean ere, elkarregaz gozatuko dituzte trikiti doinuak.



Iaz egin zuten jaialdiaren lehenengo edizioan parte hartu zuten trikitilariak.

Elorrioko txapelketa

Trikitilari gazteen zazpi bikotek joko dute, bestalde, uztailearen 3ko Elorrioko emanaldian. Hogei urtetik beherako musikariek parte hartuko dute txapelketa horretan, gipuzkoarrak denak. Txapelketaren lehenengo edizioa irabazi zuten Julen Alondok eta Eneritz Aulestiak parte hartuko dute, esaterako.

Hiru pieza jo beharko ditu bikote bakoitzak, eta sari hauek

jasoko dituzte lehenengo sailkatuek: txapela eta 250 euroko saria lehenengoak, 200 euro bigarrenak, eta 150 hirugarrenak.

Juan Luis Elorza ekimenaren antolatzalea pozik dago txapelketaren orain arteko bi edizioetan jaso duten erantzunagaz, “baina urteko gainontzeko egun guztietan trikitixa kalera ateratzeko” ekintza gehiago behar direla ere uste du. Elorzarren berbetan, “astindu bat behar

du trikitixak: inguruko herrietan tradizio handikoa izan da trikitixa, eta gaur egun ere ume eta gazte asko dabil trikitixa jotzen ikasten, baina kalean indarra berreskuratzea behar du”.

Alde horretatik, Elorrioko txapelketaren aurreko egunean izango den Amatzako jaialdia “oso ederra” izango dela uste du Elorzak. “Trikitixaren alaitasuna gazteei transmititzen laguntzen dute ekimen horiek”.

Oier Andueza durangarraren kartzelako margo, leiho eta ihesak

Anduezaren ‘Margoak. Leihoak. Ihesak’ erakusketa, uztailean, Durangon

> ARTEA

I. E.

Hamabost urte preso daramatzan Oier Andueza (Durango, 1975) margolanen erakusketazabalduko dute, uztailearen 5ean, Durangoko Museoa. Musika, hitza eta bertsoa izango dira inaugurazioan: Hanneke taldeak ipiniko du musika, eta Oihana Etxegibelek, Ibon Belokik, eta Eneko Abasolo *Abarkasek* ere parte hartuko dute.

2001ean atxilotu zuten Andueza, eta Espainiako hainbat kartzelatan eman dituen urteotan garatu du margogintzarekiko zaletasuna. “Irakaslerik eta apenas materialik gabe”, bere kabuz landu du zaletasuna. “Pastel barrak, bere atzamarrrak, paperen bat eta zotz bat” baliatu ditu, erakusketaren katalogoan azaltzen denez. Burua kartzelatik askatzeko bidea izan

du Anduezak margotzea: “Eskuetan margoak hartzen ditudanean, espetxetik ihes egiten dut”, dio durangarrak.

Erakusketaren katalogoan esaten denez, jendea margotzea da Oier Anduezak gustukoen duena, eta erretratuak dira *Margoak. Leihoak. Ihesak* erakusketako gehienak.

Uztailearen 17ra arte egongo da erakusketa ikusgai.



Musika eta zirkua uztartzen ditu Farra Fanfarra talde lisboarrak.

Farra Fanfarra taldeak irabazi du Haizetara

Zornotzako lehiaketan parte hartu zuten hamar taldeetatik Farra Fanfarra hautatu dute irabazle

> MUSIKA

I. E.

Lisboako Farra Fanfarra taldeari eman dio Banden eta kale musiken Zornotzako Haizetara lehiaketaren epaimahaiak 10.000 euroko lehenengo saria. Musika eta zirkua uztartzen dituzte talde portugaldar horrek.

Beste hiru sari ere banatu zituzten Zornotzako musika lehiaketaren XI. edizioan. Mexikotik etorritako Brass Street Boys taldeak jaso du entzuleen

saria, Farra Fanfarra taldeko Mateja Dansok eta Camillocloromo Swing Orchestra taldeko Gabriele Stoppa izan dira instrumentista onenen sariak eskuratu dituztenak, eta The Busquitos bandari eman diote epaimahaiaren sari berezia.

Lehiaketan parte hartu duten nazioarteko hamar musika taldeen eskutik, jai giroa izan da ekaineko azken asteburuan nagusi, Zornotzan.



Oier Andueza durangarrak preso dagoela egindako margolanek osatzen dute erakusketa.

> MUSIKA Itsaso Esteban
Haitz Uriartek —23 urteko Inshore DJ abadiñarrak— jaso du Gaztea irratiaren DJ lehiaketaren entzuleen saria: 500 euroko saria.

Badira lau-bost urte Uriarte zaletasun honetan murgilduta dagoena, baina lehenengoz aurkeztu da lehiaketa batera. Gaztea DJ lehiaketako zortzi finalistetako bat izan da, eta saria eskuratzea ere lortu du lehenengo saiakeran. “Nire izena ezagutzera emateko aukera bat izan da Gaztea DJ lehiaketan parte hartzea”, azpimarratu du.

Haitz Uriarte: “Nire izena ezagutzera emateko aukera izan da Gaztea DJ lehiaketan parte hartzea”

Batez ere house eta deep house doinuak uztartzen ditu Haitz Uriarte abadiñarrak bere saioetan, eta teknoa ere eskaintzen du. Doinu melodikoak bilatzen ibiltzen da.

Gazteako DJ lehiaketan entzuleen saria jaso du Inshore abadiñarrak

500 euroko saria jaso du Inshore DJak: Haitz Uriarte 23 urteko abadiñarrak

Inshore izen artistikoagaz Haitz Uriartek egiten duena zuzenean entzun gura duenak hainbat aukera izango ditu datozen asteburuetan: zapatu honetan Elantxoben arituko da, adibidez, eta Lagako hondartzan uztailearen 9an. “Udako jaiak-eta tarteko, DJentzat zuzenean aritzeko aukera gehiagoko sasoia izaten da uda” azaldu du.

Aitor Pintado herrikideagaz Gau Elektronikoa hasi zen Uriarte DJ gisa jarduten. Bartzelonan produkzio musikaleko ikastaro bat burutu du, bi urtez, eta soinu teknikari ikasketak ere egin ditu.

Interneteko soundcloud eta lehen erabiltzen zuen Jackkin Noise izen artistikoagaz, youtube atarian ere entzungai daude Inshoren saioak.



House eta deep house doinuak uztartzen ditu Uriartek bere saioetan.

GEURE DURANGALDEA

JON IRAZABAL

Gerediagako kidea



Urkiola & Londres

Urkiola izenarekin hainbat eraikuntza, toki eta traman-kulu bataiatu dira. Euren artean, 1949an Sestaoko La Naval ontziolan Aznar enpresarako egindako itsasontzi bat. Kanarietatik Londresera egiten zuen itsasontziak bidaia, turistak eta fruta eramanez.

Bilbon eraikitako burdinazko ontzi hau maitemindurik zegoen Londresko zubi famatuarekin, eta ez zekien nola adierazi maitasun hori. 1945eko urtarrilaren 27an Londresko zubiko zutabe bati “musu” bat eman zion: itsasontziak eta zubiak topo egin zuten. Tamesis erreka praktiko eta atoiotziek erreka arduraz bazuten ere, ez zuten lortu Urkiolak muinik ez ematea zubiari, egunkariak diotenez. Kalteak ez ziren handiak izan, eta hurrengo egunean bere bidaiari berrekin zion.

Baina, maitasuna benetakoa denean benetako da eta, urte bereko martxoaren 10ean, gure itsasontziak beste “musu” bat eman zion bere bihotzeko zubiari. ABC egunkariak hauxe idatzi zuen: “Urkiolak aurrera darrai Londresko zubien aurka bere gudaldiarekin”. Ikusten denez, praktikoak eta atoiotziak ez ziren hain praktikoak.

Baina, “ez dago birik hirurik gabe” gaztelaniazko esamoldeari jarraituta, handik hiru urtera, 1957ko martxoaren 20an, gure Urkiolak hirugarrenez jo zuen Londresko zubia. Zubia zabaldu eta ixteko agente kontrola eta makineria zeuden zutabearen kontra jo zuen. Zubia itxita egon zen kotxe eta itsasontzientzat, eta Londresen sortu ziren buxadurak neurrikoak izan ziren. Dena burdin arteko maitasun istorio bat dela-eta. 1976an Singapurreko armadore batek erosi zuen Urkiola, eta 1978an zatikatu egin zuten. Goian bego!

Itsusian aske

Durangoko Karrika antzerki taldearen ‘Zapoi’ antzezlanaren kritika idatzi du Agus Perezek



Oreretako Eztena jaialdian eskaini zuten emanaldia, asteburuan. Urko R. Pescador

> ANTZERKIA Agus Perez
Durangoko Karrika antzerki taldeak apirilean aurkeztu zuen bere azken sorkuntza, *Zapoi* izena daroana. Harrezkeroztik, Durangaldetik kanpo ere ibili da, eta Eztena jaialdian ikusi berri dugu.

Ausardia estetikoan bermatuta, oso proposamen aurrreratua taularatu dute, eta argumenturako aitzakia izan da antzerki talde bat antzokitik kanporatua izateko arriskua. Hortik abiatuta, gai potolo batzuk aztertu dituzte, hala nola krisi ekonomikoa, boteretsuen jarrera harroputzak, zapalduen beldurak eta emakumeen rola aldarrikapena, Eneko Sagardoik itzulitako *Medea*-ren zati batzuk tarteko.

Taldearen ohiko estiloan, ekintza eszenikoaren garapena ez da dialogoaren bidetik eman: haietariko bakoitzak ez du ia besteekin berba egin,

paziente eroak balira legez edo nor bere munduan balego lez. Samurtasun bakarra aurkeztearen eta bere pailazo laguntzailearen artekoa izan da, eta beste hartu-eman nagusia konpainiaren arima erosi gura duen Faustoren mehatxuekin etorri da.

Azentua emozioetan

Fikziozko antzezleek ekintzetan, begiradetan eta keinuetan irudikatu dute denaren arteko elkartasuna, eta zuzendariak uko egin dio narratiba arruntari. Azentua emozioetan eta sentsazioetan jarri, eta ederto uztartu ditu pertsonaien izaera groteskoa, jantzien itxura espresionista eta elementu eszenikoen olgeta. Era berean, aipatzekoak dira argien eta soinu-espazioaren diseinua, bat egin dutelako osotasunarekin, antzezle denaren presentzia eszenikoa eta ofizioa lagun.

Uztailaren 1a, ostirala
19:00 Musika Eskola parka
Markeliñe
Crusoe

Uztailaren 7a, osteguna
21:30 Andra Mari Elizpea
Marino e Marini

Uztailaren 9a, larunbata
20:00 Ezkurdi parka
Maintomano Circo
Ekilibra

uda kalean bizi 2016 san agustin kultur gunea kalean
MUSIKA ZIRKOA DANTZA ANTZERKIA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA EGUNEKO MENUA IGANDEETAN MENU BEREZIAK	UZTAILAK 2 19:00etan JORGE eta DEIENE DANTZA	UZTAILAK 5 20:00etan EMAKUMEAK DANTZAN: SOINEKOAREKIN ZANGO-DANTZA MAHAINGURUA	URRIAK 1 22:30etan DAVID GUAPÓ BAKARRIZKETA
--	---	---	--

Etorkizun gorriari esperantza berdea

Babesleen eta diru-laguntza publikoen jaitsierak bidegurutze batean jarri du Zornotza Saskibaloia Taldea



Taldeari elkartasuna erakusteko eskumuturreko berdeak Zornotzako hainbat denda eta tabernetan eskuratu daitezke.

> SASKIBALOA J.Derteano
Gaur egun hainbat kirol profesionalean eskurik esku mugitzen diren neurrigabeko diru kopuruekin alderatuta, 20.000 eurok hutsaren hurrengo ematen du. Baina, gehiegi puztutako

negozio-esparru horretatik kanpo bizi diren askorentzat kopuru hori bideragarritasunerako mugaria izan daiteke. Horixe da Zornotza saskibaloia taldearen kasua. Babesle nagusi bat erori zaie, Aldundiak ez die 7.000 eu-

roko diru-laguntza bat emango, eta aurrekontuetako zenbakiak gorrian dituzte. Ez da koloreen abanikoan aurkitu daitekeen gorri biziaren, gehiago da laranja argi bat, baina egoera hori nahikoa da kontuak egunean eta

zorrik barik eramatera ohituta dagoen talde bati buruhausteak eragiteko. Gauzak horrela, kokolan ote dago Zornotza S.T.-ren jarraipena Zilarrezko LEB Ligara? Ezetz dirudi, baina Joxe Etxebarria presidenteak argi du kontu bat: "Taldea nagusiaren azpitik beste 18 edo 19 talde daude. Ez duguna gura da urtero balantza batean egotea eta kokolan jartzea, ez LEB mailako taldea bakarrik, baizik proiektu osoa".

Zornotzaren aurrekontu osoa 260.000 euro ingurukoa da. Urtero 20.000 euro jasotzen zituzten babesle nagusi baten eskutik, baina aurten 10.000ra jaitsi diete, eta hurrengoan ez du jarraituko: "Berba onak baino ez ditugu eurentzat. Hiru urtean babesle nagusi horixe izan dugu bakarrik. Askok lagundu digu, eta esker oneko gaude". Baina, buruhauste bat da. Horrez gainera, Aldunditik aurten arte jasotako 7.000 euroak ere amaitu dira: "Aurten ez digula ezer emango esan digute".

Ondorioz, aurrekontuetako sarrera gastuak ez daude orekatuta, eta ez daude horretara ohituta: "Ez dugu zorrik, ordainketak egunean daramatzagu. Baina, ez zaigu gustatzen ziurgabetasun horregaz kantxara jokatzeko irteera. Normalena litzateke, lana ondo egiten badugu, 20.000 euroak edo, gutxienez, zenbateko handi bat lortzea, baina, hurrengo urteetan zer? Alde horretatik, seguru jokatzeko gustatzen zaigu". Klubaren eta

norberaren lasaitasunerako: "Esaterako, jokalariei edo autobus konpainiei diru piloa zor dieten presidenteak ikusi izan ditut kaletik lasai ibiltzen, baina nire edo gure zuzendaritzaren kasuan ezingo genuke hori egin. Zornotzan bizi gara eta zornotzarekin egiten dugu gure bizitza".

Uztailaren 12a da Espainiako Saskibaloia Federazioan izena emateko epemuga, 18:00etan hain zuzen. Izena eman ahal izateko, eskakizun ekonomikoak estali ditzakete, baina epe ertain baterako bideragarritasuna da zaindu behar dutena.

Egunotan babesle bila dabil-tza: "Lanean ari gara. Gauzak ez doaz guk gurako genukeen bezain ondo, baina badoaz apurka-apurka. 300 euroko babesletza bat oso lagungarria da guretzat, baina, jakina, asko behar. Bi-hiru urterako 25.000 euroko bat lortzea lasaitasun itzela litzateke". Lortzen dutenarekin aurrekontu bat osatu, proposamen bat diseinatu eta bazkideen urteko batzarrean eztabaidatu dute.

Eskumuturreko berdeak 'Ametsak berdeak direlako'. Lelo hori idatzita duten gero eta eskumuturreko berde gehiago ikusten dira herrian. Klubaren ekimen bat da. Euro batean erosi daitezke Singin eta Pozu's tabernetan eta Cay Ville arropa-dendan. Klubeko webgunean ere eskatu daiteke: "Gaia kalera ateratzeko modu bat da. Esaterako, asteburuan Haizetara jaialdian jarritako txosnan beren beregi eskumuturrekoak erostera etorri zitzaigun jendea. Horixe zen helburua. Jendea kontzientziazten ari dela uste dugu".

Gipuzkoan ere bere lorratza utzi du Garciak

Gizpuzkoako Itzulian etapa garaipena lortu du



Gontzal Garcia Gipuzkoako Itzuliko etapa garaipena ospatzen.

> TXIRRINDULARITZA J.D.
Gontzal Garcia atxondarra (Beste Alde-La Tostadora) sasoi batean dago. Hile eta erdian hirugarren etapa garaipena lortu du. Joan zen domekan Gipuzkoako Itzuliko hirugarren etapa irabazi zuen, Andoainen. 93 kilometro eta 2 mendate eduki zituen etapan hainbat ihesaldi egon ziren. 11 txirrindulari ihes eginda heldu ziren azken metroetara, eta esprint luzean Garcia nagusitu zen.

Horrela, garaipenaren zakua gero eta beteago du atxondar gazteak. Maiatzean Urduñako lasterketa eta Arabako Itzuliko azken etapa irabazi zituen. Azpimarratzekoa da apirilean Zornotzako Udaberri Klasikoan junior mailan lortu zuen podiuma ere.

Padelak 3.323 euro batu ditu Rio de Orentzat

> PADELA I.E.
Fair Play Durango Padel Klubak ekainean antolatutako txapelketa solidarioan 3.323,91 euro batu ditu aurten. Batutako di-

rua Izurtzara urtero udan ume sahararrak ekartzen dituen Rio De Oro elkarteari eman diote, horixe izan baita ekimenaren helburua.



Fair Play padel klubeko eta Rio de Oro elkarteak ordezkatzen.



Romero irabazitako urrezko dominekin.

Romerok urrezko lau domina eta errekor berria Espainiakoan

> **ATLETISMOA** J.D.

Jose Luis Romero atleta durangarra (Durangaldea Running) urrezko lau dominagaz eta errekor batez itzuli da joan zen asteburuan Elxen jokatu zen pista irekiko Espainiako beteranoen txapelketatik.

Aurten estreinako denboraldia du Master 70 mailan eta, aurreko mailetan moduan, honetan ere luzaro iraun dezakeen lorratza uzten ari da. 100, 200 eta 400 metroko probetan eta 300 metroko hesidun proban lortu zituen urrezko dominak. Beti ondo prestatuta, txapelketan, benetako orduan heltzean, bere maila gorena emateko kapaz dela erakutsi zuen beste behin.

Gainera, azken horretan, errekor berria ezarri zuen: 50.12an osatu zituen 300 metroak. Horrela, marka berri bat

lortu du M70 urtean ari den estreinako denboraldian.

Domina bildumagilea

Elxen jokatu dutena pista irekiko txapelketa izan da. Orain hilabete gutxi, pista estalikoak izan ziren Malagako Antequera herrian, eta orduko hitzordu hartan ere dominen zakua ondo beteta ekarri zuen. Romerok parte hartu zuen hiru probetan urrezko dominak kolporatu zituen: 400, 200 eta 60 metroko probetan, hain zuzen. Gainera, lehenengo bietan ordura arteko markak apurtzea lortu zuen, proba bikainak osatu ostean.

400 metroko proban hiru segundotan hobetu zuen aurreko marka, eta gaur egun bereak dira 400 metroko Espainiako errekorrak 55 urtetik aurrerako Master maila denetan.

ADITUAREN TXOKOA

KOIKILI LERTXUNDI

Furbolari ohia eta enpresaria



Zein da zure aukera?

Oraintsu bukatu diren Espainiako futbol liga profesionalek berri historiko batekin eman diote amaiera, izan ere 5 euskal talde arituko dira lehen mailan 2016-2017 denboraldian.

Egoera hau ez zen 1930. urtetik ematen. Hortaz, 86 urte igarota, nahikoa izan daiteke historikotzat jotzeko. Baina, ordutik, futbola asko aldatu da, eta egun 5 euskal talde egoteak orduan baino eragin handiagoa du duda barik. Kirol arloko eragina, eragin soziala, ekonomikoa eta politikoa.

Guztietatik bat azpimarraztekoan sozialki izan dezakeen eragina aipatuko nuke, 4 hiriburu erreferente zuzenean ordezkaturik egongo direlako, eta gainera, Eibarraren "miraria" bizi bizirik dagoelako.

Asko pozten naiz beti maite izan ditudan euskal taldeak hain osasuntsu ikusita. Gainera, bai Bilbon bai gaitortzeko tokietan zuzenean partidez gozatzeko aukera sekulakoa izango delako.

Hori bai, bihotzez espero dut zelai kanpoan anai-arreben artean sortzen den giro armoniosua zelai barruan ere antzera mantentzea.

Futbola ez da euskaldunen arteko ezinikusia areagotzeko tresna gisa erabili behar, guztiz kontrakoa, norberaren koloreekiko harrotasuna eta elkarrekiko anaiatasuna indartzeko baizik. Beraz, noan tokira noala, nik Athletic animatuko dut, energiak hor utziko ditut, eta ez anai-arrebak iraintzen. Zein da zure aukera?

Maddi Euskadiko xakelari onenen artean 12 urteaz

Nesketan seigarren amaitu du maila absolutuan

> **XAKEA** J.D.

Zaldi Baltza xake taldeko Maddi Zubizarreta Landera elorriarra Euskadiko Xake Txapelketan lehiatu zen joan zen asteburuan, Bilbon, eta seigarren amaitu zuen emakumeetan. Adin denetako xakelariak txapelketa berean aritu ziren, eta Zubizarretari 30, 40 edo 50 urteko xakelarien kontra aritzea egokitu zitzaion. Hiruna partida irabazi eta galdu zituen, eta seigarren amaitu zuen. Bizkai-ko txapelketa irabazita lortu du Euskadikora sailkatzea.

pelketa berean aritu ziren, eta Zubizarretari 30, 40 edo 50 urteko xakelarien kontra aritzea egokitu zitzaion. Hiruna partida irabazi eta galdu zituen, eta seigarren amaitu zuen. Bizkai-ko txapelketa irabazita lortu du Euskadikora sailkatzea.



Zubizarreta Bilbon, federazioko presidentearen eskutik saria jasotzen.

Berasaluzek Durangon jokatu du partidua, etzi

Larunbegaz ariko da Urrutikoetxea-Zabalaren aurka



Pablo Berasaluze pilota profesionaletik erretiratuko da aurten.

> **PILOTA** J.D.

Durangoko Udalak antolatuta, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuak esku pilota partidu profesionalak hartuko ditu domekan, 17:00etan. Estelarreko protagonistetako bat Pablo Berasaluze izango da. Larunbegaz bikotea

osatuz, Mikel Urrutikoetxea eta Ibai Zabala izango ditu kontrario. Atariko partiduan Victor eta Iturriaga Laso eta Apraizen kontra arituko dira.

Sarrerak Txukun tabernan eta pilotalekuko tabernan eskuratu daitezke.

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
 Delicatessena - Ardotezia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Bulegorako zigiluak
 Fotolitoak

Betikoak
 flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
 48215 IURRETA

hitz

#gomendioak

artekalea 14, durango
 946 810 776
 info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT
 GAUZAK EZ ZIREN
 SEKULA BERDINAK
 IZANGO
 Iñaki Irastzabal (2016)

UME ETA GAZTEENTZAT
 LUR ETA AMETS -
 MARTXA ETA BORROKA!
 U. Alberdi eta
 P. Peláez (2016)

MUSIKA
 GAU AMA
 We Are Standard (2016)

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotaritxueña Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalel bifamiliari bat eraikitze lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m²-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baseri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m²-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txalela 1.200 m²-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baseri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliari ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baseri bifamiliarra berriatze. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.

BERRIZ. Baseri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobea.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguedado.com
inmoduranguedado@gmail.com

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO-TROMPERRI



• 99 m²ko etxebizitza eraikita. 4 logela, egongela handia, sukaldea jarrita, 2 komun, garajea eta ganbara. Dena kanpora begira. Ikuspegi onak eta eguzkitsua. Terraza eta txoko komunitarioa. 243.900€.

MUSIKO ALTUNA



• Etxebizitza guztiz berriatua. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, ganbara eta garajea. Guztiz isolatua. Konsultategia izateko prestatua dago. 206.000€.

DURANGO-BARREKALE: ALOKAIKUA, EROSTEKO AUKERA



• 67 m²-ko etxebizitza dotorea, 2 logela, egongela, sukalde amerikarra, komun 1, 2 balkoi, trastelekua. 199.000€. 700€-er hilabetea.

TABIRA



• Apartamentu ederra, hegoaldera begira, Tabirako zonaldean. Logela 1, egongela, sukaldea jarrita, komuna, balkoia eta kamarotea veluxekin. 198.000€.

DURANGO-ALLUITZ



• Logela bateko apartamentua, egongela, sukaldea jarrita, komuna, balkoia eta ganbara. Bizitzera sartzeko moduan. 140.000€.

DURANGO-ANTSO ESTEGI



• Etxebizitza 4 logelarekin, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. Berogailua gas naturalarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 134.000€.

www.inmoduranguedado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBITZAK SALGAI

OLLERIA



• 100m². 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekutokia. Egongela. Ganbara eta Garajea. 265.000€.

TABIRA



• 75 m². 2 logela. Komuna. Sukaldea eta egongela. 125.000€.

TRONPERRI



• 4 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea. Ganbara eta Garajea. Txoko komunitarioa eta solariuma. 243.900€.

M. TORRE



• 134m². 4 logela. 2 komun. Sukalde-jangela. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta 2 garaje toki. 270.000€.

DURANGO (aukera)



• 3 logela. Komuna. Egongela. Eguzkitsua. 85.000€.


MATIENA



• 4 Logela. Komuna. Sukaldea. Despentsa. Egongela terrazarekin. Garajea aukeran. 155.000€ negoziagarria.

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIKUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIKUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

EDERTASUN GIDA



Jon Sopelana. Iunik.

Koloreak eta bioterapia

Iunik ile-apaindegiko Jon Sopelanak koloreetan eta estetika mailan eskaintzen dituzten abantailen berri eman digu, besteak beste.

Zer abantaila dute lunikeko koloreek?

Gure koloreekin ilea ia ezer mintzen ez dugunez, eguzkiaren eragina askoz txikiagoa da, eta, ondorioz, kolorea eta ilearen izaera hobeto mantentzen dira bere baitan.

Eta zelako garbiketak eskaintzen dituzue?

Estetika mailan, bioterapiak dira eskaintzen ditugun gorputzeko zein aurpegiko garbiketak. Garbiketa hori maila zelularrean egiten da, ordena errekuaratuz eta poroa murriztuz. Barrutik kanporako tratamendua da, azalaren beharrianen arabera garatzen dena. Petrolotik datozen substantzietatik aske dago, eta aktibo botanikoekin osatzen da.

Horrez gainera, beste zerbitzu batzuk ere badaude eskura Iuniken, ezta?

Bai. Manikurak, pedikurak, makillajeak, depilazioa ur epel eta ur beroagaz, masajeak, betileen permanenteak eta luzatzeak...



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

AGENDA

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.





Uztailaren 2an, 22:30ean, Elorriko plazan

La M.O.D.A.

Burgosko La Maravillosa Orquesta Del Alcohol seikotearen kontzertua izango da aurtengo Musikaire jaialdiaren barruko bigarren hitzordua. Askotariko instrumentu akustikoen soinua eta David Ruizen kantakera berezia dira folk rock ukituko kantak egiten dituen taldearen osagaietako batzuk.



Musika

:: DURANGO

UZTAILAREN 7an

21:30ean, Marino e Marini, Andra Mari elizpean.

:: ELORRIO

UZTAILAREN 2an

22:30ean, La M.O.D.A., plazan.

UZTAILAREN 4an

20:00etan, Berriotxoa abesbatza, Santa Anan.



Antzerkia

:: DURANGO

UZTAILAREN 1ean

18:00etan, Markeliñe taldearen 'Crusoe', Musika Eskolako parkean.



Erakusketa

:: DURANGO

UZTAILAREN 5etik 17ra

Oier Anduezaren 'Margoak. Leihoak. Ihesak' erakusketa, Arte eta Historia Museoa.



Jaiak

:: ATXONDO

UZTAILAREN 1ean

20:15ean, Flash Move.

20:30ean, Tortilla eta bakailao txapelketak eta afaria frontoian.

23:00etan, Erromeria Oxabi taldeagaz.

UZTAILAREN 2an

15:00etan, paella jana, koadrilen arteko jolasak eta poteoa Ttek txarangagaz.

19:30ean, umeentzako tailerra, Diables de Granada taldeagaz.

22:30ean, Diables de Granada taldearen emanaldia. Ondoren, Sermonds eta Worth It kontzertuan.

UZTAILAREN 3an

11:00etan, Atxondoko gazteen pilota partiduak.

17:00etan, 30. igel txapelketa, Itziar tabernan.

18:00etan, Olinda taldearen kontzertua.

19:30ean, Talo jana eta txopoa kentzea.

:: BERRIZ

UZTAILAREN 1ean

17:00etan, Play back lehiaketa, Elizondo plazan.

18:00etan, umeen ginkana, txosnagunean. Gazteentzako frontenis txapelketa, Berrizburu kiroldegian

19:00etan, Nagusien ginkana.

20:00etan, La Pulgaren flamenko eta txalaparta emanaldia, lorategian.

21:00etan, erromeria Drindots taldeagaz, Elizondo plazan.

22:00etan, frontenis txapelketaren finalak, Berrizburu kiroldegian.

23:00etan, erromeria Drindots taldeagaz, Elizondo plazan.

23:30ean, Kometa, Rural Zombies eta El Txef A.

UZTAILAREN 2an

11:00-14:00 eta 16:30-19:00, trena Elizondotik Olaketaraino.

12:00-14:00 eta 16:00-19:00, umeentzako jolasak.

12:00etan, meza nagusia eta Dantzari Dantza.

14:00etan, paella lehiaketa, udaletxeko lorategian.

15:00etan, bazkaria txosnetan.

17:30ean, karta joko lehiaketa.

18:00etan, koadrilen jaitsiera.

19:30ean, herriko igel txapelketa.

UZTAILAREN 2an, Dantzari Dantza.

20:30ean, bolo txapelketa.

22:00etan, erromeria Luhartz taldeagaz.

22:30ean, Gudaize, Nevadah eta Danny Meip & Viktor Zelden DJa.

23:00etan, suzko zezena.

UZTAILAREN 3an

17:00etan, 3x3 saskibalo txapelketa 9-17 urtekoentzat, Institutuko patioan. Ostein, familientzako jaurtiketa libre txapelketa.

19:00etan, barbakoa eta afrikar musika, txosnagunean.

21:00etan, tortilla lehiaketa, udaletxeko lorategian.

22:00etan, Storm, txosnagunean.

23:00etan, su artifizialak.

23:15ean, The Ladies, Elizondo plazan.

00:30ean, argazki lehiaketa, txosnagunean.

:: IURRETA (Arriandi)

UZTAILAREN 2an

19:00etan, Donien Atxaren igoera.

19:30ean, dantzarien azken entsegua.

20:00etan, trikitixa jaialdia.

22:00etan, afaria.

UZTAILAREN 3an

20:30ean, tortilla txapelketa.

21:00etan, afaria, bertsolariak eta erromeria.

UZTAILAREN 4an

10:30ean, trikitilariekin kalejira.

11:00etan, meza nagusia.

11:30ean, auzoko dantzariak.

15:00etan, bazkari herrikoa, karta lehiaketa, igel txapelketa eta umeentzako jolasak.

:: ZORNOTZA (Borot)

UZTAILAREN 1ean

20:00etan, tortilla txapelketaren aurkezpena.

21:00etan, umeen bolo txapelketa.

22:00etan, nagusien bolo txapelketa.

23:00etan, Xabier Aburruzaga eta Joseba A. Urrutia.

UZTAILAREN 2an

09:00etan, txakurren txapelketa eta erakustaldia.

12:00etan, umeentzako puzgarriak.

14:00etan, paella txapelketaren aurkezpena.

17:00etan, mus txapelketa.

22:00etan, idi probak.

24:00etan, erromeria Joxe Angel Elizaldeagaz.

UZTAILAREN 3an

10:00etan, triki karro poteoa.

14:30ean, bazkaria.

UZTAILAREN 10ean

12:30ean, hildako bazkideen omenezko meza.

15:00etan, bazkideen bazkaria.

17:00etan, bazkideen igel eta bolo txapelketa.

19:00etan, errifaren zozketa.



Berbaldia

:: DURANGO

UZTAILAREN 5ean

20:00etan, Oier Araolazaren 'Emakumeak dantzan: soinekoarekin zango-trabatuta' berbaldia, Plateruenean.




Dantza

:: ELORRIO

UZTAILAREN 1ean

22:30ean, Jesus Herreraren 'Dantzari', plazan.



:: DURANGO | ZUGAZA

Independence Day: Contra Ataque

- barikua 1:** 19:30/22:00
- zapatua 2:** 17:00/19:45/22:30
- domeka 3:** 16:30/18:30/21:00
- astelehena 4:** 18:00/20:30
- martitzena 5:** 20:00

Malditos vecinos 2

- barikua 1:** 22:00
- zapatua 2:** 20:30/22:30
- domeka 3:** 19:00/21:30
- astelehena 4:** 20:30
- martitzena 5:** 20:00

Nuestros amantes

- barikua 1:** 19:30/22:00
- zapatua 2:** 20:30/22:30
- domeka 3:** 19:00/21:30
- astelehena 4:** 20:30
- martitzena 5:** 20:00

Buscando a Dory

- barikua 1:** 19:30
- zapatua 2:** 16:30/18:30
- domeka 3:** 16:30
- astelehena 4:** 18:00

Phantom Boy

- zapatua 2:** 16:30/18:30
- domeka 3:** 16:30
- astelehena 4:** 18:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Independence Day: Contraataque

- barikua 1:** 20:15
- zapatua 2:** 22:00
- domeka 3:** 20:00
- astelehena 4:** 20:15

> **BOTIKAK**

BARIKUA, 1 09:00-09:00	DOMEKA, 3 09:00-09:00
Mugica Andra Maria 9 - Durango	Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza	Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00	09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
ZAPATUA, 2 09:00-09:00	ASTELEHENA, 4 09:00-09:00
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango	De Diego Intxaurrondo 22. - Durango
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-13:30	MARTITZENA, 5 09:00-09:00
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango	Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
De Diego Intxaurrondo 22. - Durango	EGUAZTENA, 6 09:00-09:00
Navarro Artekalea 6 - Durango	Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango
Bartolome Gabiola 2 - Berriz	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Larrañaga-Balentiaga Berrio-Otxoa 6 - Elorrio	EGUENA, 7 09:00-09:00
09:00-22:00	Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

> **EGURALDIA**

ZAPATUA	18° / 11°	
DOMEKA	21° / 13°	
ASTELEHENA	26° / 18°	
MARTITZENA	24° / 16°	
EGUAZTENA	23° / 16°	
EGUENA	22° / 15°	

> **ZORION AGURRAK**



Jakoba Errekondoren Bizi baratzea liburuan oinarritutako
Alta Porru komiki liburua eskuratu duten irakurleak:

Inma Biritxinaga
Josune Aranguren

anboto 
komunikabideak

 zorionak@anboto.org
eguztaren 14:00ak arteko epea

> **ZORION AGURRAK**



Ermodo, 11 - DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

 **Gozatu Gozategia**

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta batzotz egingo dugu.
Zozketan parte hartzeko bidali kontakturakodatuak zorion agurrarekin batera.



> Gure etxeko tximistak lau urte bete zituen ekainaren 30ean. Zorionak, **Oihan**, eta musu bat etxekoekin **partez!**



> Dantzari polit honek zortzi urte beteko ditu uztailearen 3an. Zorionak, **Ane**, eta muxu bat zure ahizpa Aiala eta familia guztiaren partez.



> Zorionak, **Oihan**, ekainaren 29an 6 urte egin dituzulako. Musu handi bat etxekoekin partez.



> Zorionak, prexioxa, etxekoekin partez. Oso ondo pasa dezazula printzesa.



> Uztailearen 3 eta 19an, Berrizko **Ugaitzek** eta **Araik** 7 eta 3 urte beteko dabez, zorionak eta muxu asko etxeko guztixen partez.



> Gure etxeko kirolariak 8 urte egiten ditu gaur, oso ondo pasatu, maite zaitugu.



> Etxeko guztien partez gure zorionik beroenak etxeko txikiari bere bigarren urtebetzean. Zorionak, **Peio!**



> Etxeko granujatxuek bi urte bete deuskuzela! Beti alai eta irrifartsu, Intza, Irati, aitatxo eta amaxok pila maite zaittugu!



> **Irati** 7 urte egin ditu ekainaren 29an. Zorionak eta patxo haundi-haundi bat etxeko danon partez. Maite zaitugu, guapa!



> Zorionak zorotxo, egun ona pasau. Gu traguen zain geratzen ga.



> Ekainaren 27an **Elenek** 4 urte bete ebazan eta bihar amama **Maribelek** ...asko! Zorionak etxeko danon partez, batez be, Malen eta Magalin partez.



> Zorionak bikote! Espero dogu Costa Rica aldetik pillua disfrutau izana! Kuadrilakuak topera!



> Maite zaitut maite zoratzearaino... zuek baiño ederragorik ez da iñon. Zorionak lagun guztien partez.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA



Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa
Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

“Herri bakoitzean perratoki bat zegoen lehen, orain guk daramagu”

Perratzaile gazte honek makina bat kilometro egiten ditu, hara eta hona, Bizkaian eta Gipuzkoan

> AKUILUA Aitziber Basauri
Oraintsu hasi da perratzaile moduan lanean Axpeko Beñat Gorospe, Madrilen ikasketak egin eta lgorreko perratzaile bategaz aritu ondoren. Perrek zortea ematen ote duten galdetuta, barrez erantzun du: “Ez dakit, baina, piloa eramaten ditut egunero”.

Zer dela-eta perratzaile?
Beti egon dira zaldiak etxean. Etortzen zen perratzaileagaz ez genuen atarramendu handirik ateratzen. Azkenean, neu has-tea erabaki nuen. Baso-lanean ibiltzeko ikasi nuen, baina, ez zen lanik irteten, eta hau auke-ra legez ikusi nuen.

Ez zarete asko izango, ezta?
Ez. Are gutxiagoa gazteak. Neu izango naiz gazteena. Duran-galdean pare bat gaude. De-na den, ez naiz hemen ingu-ruan ibiltzen. Hara eta hona nabil, Bizkaian eta Gipuzkoan. Gutxi gaude, eta asko mugitu behar gara. Kilometro piloa egin behar izaten ditut.

Zenbat egunean?
300-400 bat kilometro. Egun guz-tia lanean ematen badut, azke-nean kilometro piloa dira.

Lanez lepo ei zabilta...
Bai, etxean ere badago zer egin eta. Gainera, orain animatzen da jendea zaldian ibiltzera, uda partean, eta gehiago perratzen dira. Badaude orain ibiltzeko bakarrik dituztenak: urte guz-tian perrarik gabe daude zal-diak, eta orain perratzen dituz-te. Aisialdira dago gehiago lotu-ta gure lana orain.

Orain zaudete lanpetuen?
Bai, eguraldi onagaz. Neguan oso gutxi ibiltzen dira zaldian.

Makinek ordezkatu dute ani-malien sasoi bateko lana. Izan du horrek eraginik?
Hala da, bai. Duela 50 urte ani-maliek egiten zutena orain ma-kinek egiten dute, eta perratu egin behar izaten ziren anima-lia horiek guztiak. Herri bakoit-zean perratzaile bat zegoen; edo, asko jota, herri bitan egi-ten zuen lan perratzaile batek.

Alde handia!
Bai, herri bakoitzean perratoki bat zegoen, eta hara eramaten zituzten animaliak. Orain geuk daramagu perratokia; kotxean eramaten ditut behar ditudan tresnak.

Desagertzeko dago perratzailearen ofizioa?
Ez. Hala ere, ezer gabe ibil-tzeko joera zabaldu da orain: *bare-foot* deritzo-na. Hala ere, holan ibiltze-ra ohitu egin behar dira.

Ortozik hobe?
Bai. Zaldi ba-karra dut nik perra-tuta, ezin delako or-tozik ibili. Besteak or-tozik dabilta. Guretzat ere ho-be litzateke.

Hori ez da norberaren teilatura harriak botatzea?

Ez. Ortozik dabil-tzan anima-lien hankak konpontzen ere egiten dut nik lan. Horregatik diot perratzailearen lana ez da-goela desagertzeaz. Beti egon-go dira animaliak. Hanketako gaitz asko gure lana dira, eta ez albaita-riarena. Minduta dagoen h a n k a

arinago osatzen da perragaz, babestu egiten du. Zapata bat lakoa da.

Denetariko perrak daude...
Bai. Aurreko hanketarako, atzekoetarako, eskuma, ezke-rra... eta, gero eta aurrerapen gehiago daude. Gomazko pe-rrak ere badaude, josi gabe pe-gatu egiten direnak; zapaten moduan ipini eta kendu egiten direnak.

Errementariak ere ba omen zarete askotan.

Bai. Niretzat, baina, hobya da. Laban prestatzen di-tut etxeko zaldientzako perrak. Baina, furgone-tan ez dut horrelakorik eta hotzean prestatzen di-tut.

Ostiko asko hartu dituzu?

Ez. Ostikorik ez hartzeko, zelan ja-rri ikasi egiten da; segurtasunez lan egiten ikasten da. Atzeko hanken au-rretik jarri behar ga-ra; eta atzean jarriz ge-ro, animalari pegatuta, jo ez zaitzan. Bultza bai-no ez dizu egingo. Ibili-ta ikasten da.

Sanjuanetan apustu berezia izan duzue...

Zozketa eginez ama-i-tu genuen. Asto bigaz egin genuen, bai-na, ez zuten k a k a egin.



LAUHORTZA

AITOR AURREKOETXEA

EHUko irakaslea



Heriotza

Martin Heidegger-ek, XX. men-dean izan dugun pentsalaririk handienak, gizakia heriotze-rako izakia zela esaten zigun. Epikurok, aldiz, heriotzaz pen-tsatzek ez zuela inolako zen-tzurik baieztatzen zuen, zeren eta gu munduan gauden bitar-tean heriotzarik ez dago, eta heriotza heltzen denean gu ja-da ez gara hemen egongo.

Ni, beste askotan bezala, pentsalari alemanarekin bat nator. Baina, zer esan nahi du heriotzarako gara?

Hasteko, esan behar dugu heriotzak misterioarekin ko-nektatu egiten gaituela. Hala ere, trszendentzian sinesten dutenek ez dakite nora doan gure arima hiltzen garenean. Erljio guztiek azalpen bat dute heriotzari aurre egiteko; eta kristauek, sintoistek, musul-manek, edota budistek, nahiz eta kategoria desberdinak ma-neiatu, badakite heriotzarekin hartueman bat izaten. Ateook eta agnostiko gehienek ere zer gertatzen den azaltzen digute. Materia gara eta materiara bueltatzen gara esaten di-gute.

Ni, aldiz, ez naute ez batzuek ez besteek konbentzitzen.

Nire inguruan heriotza oso present egon da azkenengo aste hauetan, eta pentsatzen dut heriotza zer bait bada, es-kandalua izango litzatekeela, eskandalua delako gure exis-tentziaren bukaera bera. Eta heriotzak ezustean eta era traumatikoan harrapatzen zai-tuenean, askoz eskandalaga-rriagoa dela esango nuke.

Gure inguruko norbait goi-zetik gauera desagertzen de-nean, ez dago ez teologiarik, ezta terapiarik ere. Umezurtz geratzen gara.

maristak
Ikastetxea - Durango
etorkizun oso bat
www.maristak.com

Matrikulak Batxilergoa
Ekainak 20tik Uztailak 6ra
Lanbide Heziketa
Uztailak 11tik 15ra

Metodologiak Etekin handiko Zikloak L.H. Duala

Ezagutu nahi bagaituzu, deitu eta zita bat eskatu!

Batzilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza

EHUKOII, GIPUZKOIA, EUSKAL ENPLEGU ERREMEDIATZAILE, HETEL, bai